

DATORRENA

Cizre eta erresistentziaren
sustraiak

IRATXE URIZAR > 3

JOXE PORTELA, IBAIAKO LEHENDAKARIA:

«Ikus-entzunezkoetan sorkuntza oparoa da,
baina baliabideak gero eta eskasagoak» > 22

2015eko irailaren 19a | IX. urtea • 434. zbk.
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



EUROPAREN LOTSA

GERRA ATZEAN UTZI NAHI DUTENEI EGURRA EMANEZ ETA MUGAK ITXIZ ERANTZUN DIE EUROPAK (IRUDIAN, SERBIA
ETA HUNGARIAREN ARTEKO MUGA). BAINA IHESLARIEK EZ DUTE ATZERA EGITEKO AUKERARIK. > 4 Istvan RUZSA | AFP

Europar agintarien «premiatzko» bilerak eta errefuxiatuen «Guantanamoak» 04

Burdin Hesiaren aztarnak biltzen hasi da Larrabetzuko herria 12

Tabakaleraren metamorfosia, Unzurrunzagak irudietan jaso 17


E.lkarrizketa: Joxe Portela, Ibaia elkarteko lehendakaria 22

Ikusmira: Zenbat ikasi dugun hamar minutu hauetan! 25

Armentia Ikastola, bertoko elikagai ekologikoen alde 26

In fraganti: Eneko Garmendia, lokotx-biltzailea 28

Juantxo Egañaren Behatxulotik 31



SINADURAK:

- 03 **Iratxe Urizar:** Cizre eta erresistentziaren sustraiak
- 10 **Unai Fernandez de Betoño:** Gaztetxeen hirigintza-eredua
- 11 **Mikel Zubimendi:** Iruzkina batzuk eta ideia bat bueltaka eta berriz bueltaka
- 15 **Maidor Iantzi:** Bihar hiltzen nautenean...
- 16 **Amaia Ballesteros**
- 20 **Gorka Zozia:** Non dago mundu guztia? I: Gu, hondartzan
- 21 **Garazi Goia:** Il Vittoriale
- 27 **Xabier Mikel Errekondo:** «Visca Catalunya!»
- 30 **Iratxe Esnaola:** Adi! Droneak!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAK
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZAK) DIRUZ LAGUNDUA

Gipuzkoa
BERRIA

{ datorrena } **Iratxe Urizar**

Cizre eta erresistentziaren sustraiak

Noizbait idatzi izan dut kalean lana egiteko aukera beti dagoela, edozein izanda ere ogibidea. Abokatuok ere, epaitegi eta auzitegiak alde batera utzita, oso lan baliotsua egin dezakegu edo egin beharko genuke, beharrezkoa den tokietan. Italiar abokatu demokraten elkarteak urteak daramatza beste elkarten-tzako eredugarriak diren ekimenak burutzen. Arazoak egon daitezkeela iruditzen zaien edozein herri mobilizazioan, dela G8koen goi bilera, dela atxiloketa batzuen kontrakoa, han da Legal Team delakoa, euren besoko dei-garriekin. Ez dute soilik abokatu asistentzia bermatzen, egon daitezkeen gehiegikerien lekuko izatea ere bilatzen dute. Egia da askotan beraiek direla errepresioaren jo-muga, baina hori ez da beharrezkoa den gorputzez gorputzeko lanarentzako oztopo.

Italiar elkarte horrek argitaratu berri du burutu duten azken ekimena. Komunikabideek ondo jaso zuten moduan, hilaren 4an (11 arte luzatua, eta ondoren 11tik 15era berrezarria), Sirnak probintziako gobernadoreak larrialdi egoera ezarri zuen Cizre hirian. 120.000ko biztanleria (Donostiaren antzera) duen muga hiria da: Turkian, baina Siriaren eta Iraken mugetan kokatuta: argindarra eta ura moztu zituen, hala nola Internet konexioa eta kanpo-aldearekin edozein kontaktu debekatuta gelditu zen.

Horiek horrela, 200 abokatu baino gehiagok osatutako martxa antolatu zen; gehienak ÇHD elkarte turkiarrekoak eta ÖHD elkarte kurdukoak ziren, baina beste herrialde batzuetakoak ere bazeuden, nazioarteko abokatu elkarteak babestuta eta HDP alderdi politikoko Sela-ttin Demirtasek lagunduta, begiraleza lanak egiteko asmoz abiatu ziren. Irailaren 10ean, polizia kontrolak ekiditeko landan zehar 30 kilometro egin eta gero, poliziak gelditu egin zituen. Hainbat negoziazioren ostean, gobernadoreak larrialdi egoera altxatzea erabaki zuen (nahiz eta gero berriro ezarri zuen). Abokatuak izan ziren helden lehenak eta gerra eszenario baten lekuko izan ziren. Bizitzeko oinarritzakoaren faltan, hainbat bizilagunek ez zuten beren etxeetatik ateratzeko debekua obeditu eta hil arte tirokatu zituzten. Beste hainbat asistentzia falta-gatik hil ziren, anbulantziek ere inora joateko debekua baitzuten.

Salaketak ugariak izan dira eta abokatuen lekukotzak ziurrenik ikerketa irekitzen lagunduko du. Baina hortik harago, esan beharra dago hau herri kurduaren kontrako beste eraso anker bat izan dela. Mundua El Estatu Islami-koaren kontrako borrokan herri kurduaren balentriaz, are zehatzago emakume kurduen balentriaz, txundituta agertzen zen bitartean, Turkiako Lehen ministroa den Tayyip Erdoganek behin eta berriro bidaltzen zuen bere ejerzitoa euren kontra. Izan ere, gatazka luze hau bere garai gordinetara bueltatu da: konponbidera eraman zezaketen negoziazioak bertan behera utzi ditu, eta terroris-moaren aurkako borrokaren aitzakiapean behin eta berriro kolpatzen du herri kurdua. Izan ere, bere enpera-dore-asmoen oztopo dira, nahiz eta berak beste zerbaitez mozorrotu nahi, Europako iritziaren aurrean bereziki.

Errefuxiatuen krisiari buruz ari garen honetan, berezko eta beharrezko herritarren elkartasun keinuak maila asis-tentzialista hutsean geratzen dira maiz. Hala ere, eta ga-tazkaren sustraira ez bagoaz, errefuxiatu horiek zergatik

Errefuxiatuen krisiari buruz ari garenean, gatazkaren sustraira ez bagoaz, ihes egitera kondenatuak dauden herriek existitzen jarraituko dute

alde egiten duten aztertu gabe, ihes egitera kondenatuta dauden herriek existitzen jarraituko dute. Azalean geratu gabe sakonera joan beharra dago, nabaria denaz (hau da, ez badoaz, hil egingo direla) harago. Europak gai honetan esku hartu beharra dauka (eta Europa diot eta ez Espainia, jakin badakigulako azken hau ez dela gatazkaren erroeta-ra joan zalea). Ez da kuota edo zenbaki arazoa, erantzuna ez da jada eskuak igurzten ari den arma industria bat eli-katuko duen eraso bat antolatzea. Gatazkaren muinera jo-atea da egin beharrezkoa, eta ez hori bakarrik, gatazka ho-rien gaineko erantzukizuna hartu beharra dago. Garrantzitsua da kaleko lana, ogibidea zeinahi dela. Guz-tion kaleko lana, gatazken muina kaleratzen laguntzeko, eta etxera begiratuta gogoratu dezagun gurean ere etxe-tik falta diren asko badirela, ihesean. Andoniren kasuan bezala, inoiz etxera bueltatu ezin izan zirenak. •

IHESLARIAK EUROPARA BIDEAN

Europar agintariak, «premiatzko» bilera batetik bestera, eta «Guantanamo» batetik bestera, errefuxiatuak

Kroaziako agintariak ostegunean adierazi zuten, 24 orduko epean 6.500 iheslari iritsi zitzaizkien Serbiatik, Austria eta Alemaniara joan nahian. Ranko Ostojic Barne ministroak alde batetik esan zuen pasabide seguruak prestatu dituztela iheslariak Zagreb hiriburura joan daitezen, baina erantsi zuen ez dutela onartuko pertsona horiek Eslovenia aldera joatea.

Aldi berean, gerra atzean utzi nahi duten ehunka lagun hartzen dituen Zagrebeko hotel bateko leihoetatik, «askatasuna» oihukatzen zuten, balkoietatik paper-biribilkia botatzen zuten bitartean. Jasaten ari diren injustizia salatu nahi zuten. Beraien Kroaziako agintarien jarra zuten jomugan, egun batzuk lehenago beste iheslari askok Hungariakoena salatzen zuten moduan.

Europar Batasuna zer egin ez dakiela dabil. Angela Merkel Alemaniako kantzilerraren jarra aldaketak izan daitezke Bruselaren ezintasunaren ispiurik argigarriena: orain aste batzuk eskuzabaltasuna agindu zien iheslariari, eta bazirudien herrialdea iristen ziren pertsona guztiak hartzeko prest zegoela, eta gero mugetan kontrolak ezartzeko agindu zuen, Ekialde Hurbiletik abiatu eta Berlingo bidean diren pertsona guztiak eta beste herrialdeetako agintariak nahastu eta zer egin ez dakitela utziz.

Donald Tusk Europar Kontseiluko presidentea datorren asteazkenearako iragarri zuen beste goi bilera bat, «premiatzkoa», egungo krisia hasi zenetik egin diren beste guztiak bezalaxe.

Baina estatueta ordezkariek ados jarri ezinik dabilta, eta inor ez luke harrituko asteazkeneko bilera hori ere joan den astelehenekoa bezalaxe bukatzea, hau da, ezer adostu gabe, asilo politikoa eskatzeko eskubidea duten milaka pertsona ho-

riei tratu duinagoa ematea ahalbide tuko luketen neurriak hartu gabe, alegia.

Agintarien zalantza horien biktima nagusiak iheslariak dira, jakina. Beren bizitza arriskuan ipintzea erabaki zuten, gerra eta txikizioa atzean uzteko, baina kasu askotan bidean ez aurrera ez atzera geratu dira.

Horixe gertatu zitzaion Kurdistango Kobane hiriko Mustafari. Hungariako Roszkeko kanpaleku batean sartu zuten, burdinazko hesiz inguratuta. «Hau Guantanamo da», esan zien hesiaren beste aldean zeuden kazetariari hilaren 11n. «Aberak ere gu baino hobeto tratatzen dituzte», erantsi zuen. Jasotako «laguntza medikua» ez zela egokia eta oso janari gutxi ematen zirela salatu zuen: «Ume bati emateko ere oso gutxi da».

JENDARTEA / joseangel.oria@gaur8.info

Turkiatik Greziara itsasotik, eta gero Mazedonia, Serbia eta Hungaria, Austriara iritsi aurretik. Bide hori aste honetan itxi diete Ekialde Hurbiletik ihes egiten ari direnei, eta orain Serbiatik Kroazia eta Esloveniara joan beharra dute, Europar Batasuneko agintariak beste «premiatzko» bilera bat iragartzen duten bitartean.

Gerratik ihes egiten ari diren lagunak beren telefonoak kargatzen, Austriako Wiesen herriko harrera zentro batean.
Christian BRUNA | AFP

Austriako boluntario batek grabatutako bideo bati esker jakin ahal izan dugu Mustafari ez zitzaiola arrazoirik falta. Hungariako Poliziak janariak zeramatzen poltsak banatu zituen eskorga baten laguntzarekin. Zerri botatzen zaien bezala botatzen iheslariari ere, hotza eta euria nagusi ziren egun batean.

Handik egun batzuetara sekulako nahaste-borrastea zuten Roszkeko kanpalekuan. Alema-

niak mugetan kontrolak ezartzea erabaki zuela entzun zuten NBEko langileek eta iheslariari zer esan ez zekiten.

«Ez dut Hungarian geratu nahi. Poliziak harrapatu eta hatz-markak hartzen badizkidate, hona itzuli beharko al dugu?», galdetzen zuen Yusuf 20 urteko siriarrak.

«Inork ez du nahi zuek hemen geratzea», erantzun zion Nazio Batuetako langileak. Baina ez berak ez beste inork ez zekien zer arraio egin beharko zuten gerrak izututako gizaki horiek.

Hungariak hesi bat eraiki du Serbiako mugan, eta gauza bera egin nahi da Errumaniakoan. Horrelako gertaeren aurrean, telefono mugikorra da iheslarien lagunik onena. Etapa bat gainditu ondoren egiten duten lehen gauza telefonoa hartu eta argazkia ateratzea izaten da, etxekoei berehala jakinarazteko non dauden. Aldi berean, beste iheslariak behar duten informazioa eskaintzen dute sare sozialetan.



PALESTINA

BIZITZA OSOA IHES EGITEN: SIRIARA, LIBANORA, ZIPRERA... EUROPARA BIDEAN

Zahra Zahrourek 84 urte ditu eta palestinar jaio zen. Sekulakoak ikusi behar izan dituen emakume honek uste zuen Siriako Homs hirian emango zuela azken arnasa, bertako egoerara, asko kostata, egokitu ondoren.

Baina Ekialde Hurbileko gerrek bertako herritarrek baino indar handiagoa dute eta aurrez egindako egitasmoak hankaz gora botatzen dituzte. Europara ihes egitea erabaki zuen azkenean Zahrourek, Sirian bertan eta Libanon dauden iheslari palestinar gehienek bezalaxe. Baina bidaia uste baino lehen amaitu zitzaion. Irailaren 6an bera zihoan itsasontzi txikia hondoratu egin zen Zipretik gertu eta erreskate taldeek salbatu zuten. Bera, eta berarekin batera zihoazen beste 100en bat lagun. Libanoko Tripolitik irten zen ontzia, gerra atzean utzi nahian.

Orain, Zipren, hasierako planak aldatu egin behar izan ditu, baina helburua ez du aldatu: Greziako itsasertzera iristea, milaka siriar, afganiar eta irakiarrek zabaldutako bidetik.

Zipren eten zaio bidaia Mohammed Hussein Hassani ere. Jakinarazi digu telebistan ikusi dituela Europako errepide eta trenbideetan iparraldera doazen milaka iheslarien irudiak. «Irudi horiek ikustean neu ere bide bera hartzera animatu nintzen», adierazi du Libanoko Shatila iheslari kanpaleku ezagunean (israelarren laguntzarekin bertako milizia kristauek egin zuten sarraskiaren eraginez) bizi zen Hassanek. Berlin Alemanian hiriburuan bizi den anaiarengana joan nahi du. Horixe du itxaropena, Mediterraneoko uharte pobreak dagoela.

Erreskate taldeek salbatu zituzten 115 iheslari haietako gehienak palestinarrak ziren, Siriako edo Libanoko kanpalekue-tatik iritsi berriak, Zipreko hegoaldean dagoen Kofinouko kanpalekuko funtzionario batek jakinarazi digunez.



Siriatik ihes egindako ume palestinar bat, Zipreko Kofinauko iheslari kanpalekuan, irailaren 9an. Samar HAZBOUN | AFP

Kasu batzuetan palestinarrak hamar-kadak egin dituzte ondoko herrialdeetako kanpalekuetan bizitzeko. Baina egoera hori erabat aldatuko zuen Sirian 2011n sortu zen gatazka ikaragarriak. Datu ofizialen arabera, geroztik 240.000 pertsona hil dituzte Sirian.

Egoerarik negargarriena Damaskoko Yarmoukeko kanpalekuan bizi zirenek jasanez behar izan zuten. Palestinar iheslari gehien hartzen zituen lekua benetako infernu bihurtu zitzaion, erregimenaren eta aurkakoen arteko borroken eraginez. Baita jihadistek egindako erasoaren eraginez ere. NBE Nazio Batuen Erakundearen arabera, gatazka hasi aurretik 160.000 pertsona inguru bizi ziren (palestinarrak eta siriarak batez ere). Gaur egun, gehienek ihes egin dute eta 18.000 besterik ez dira bertan geratu.

IRAULTZARI EMANDAKO SOSTENGUA

Siriako gerra hasi aurretik, Zahra Zahrourek ez zitzaion burutik pasatu ere egin Homs hiriko Bab Amro auzoko kanpalekutik ihes egin beharko zuenik. «Nire senarrak bertan egiten zuen lan eta ondo geunden, Libanon bizi zirenak baino askoz ere hobeto. Baina gerraren eraginez ihes egin behar izan genuen», esan digu zimurren artean begi bizi-bizirik erakusten dituen emakumeak.

Bab Amro auzoak sekulako protagonismoa hartu zuen Bashar al-Assad diktado-

rearen aurkako iraultza hasi zenean, eta erregimenak oso gogor zigortu zuen. Bonbardatu egin zuen lekua, iraultza geldiarazi nahian. «Etxe guztiak suntsituta daude orain», dio emakumeak.

Libanoko kanpalekuetan bizi ziren palestinarrak ez dute bonbardaketarik jasanez behar izan, baina beren egoera ere penagarria da. «Ez dugu ez herrialderik, ez aberrik, eta Libanok giza eskubideak ukatu egiten dizkigu», kontatu du Ghasan Nasserrek. Bera Beirutetik gertu dagoen Shatilako kanpalekuan bizi zen.

Libanoko palestinarrak ez dute izaten aukera handirik aurrera ateratzeko. Beren kanpalekuetako bizi baldintzak oso txarrak dira eta makina bat lanetan aritzea debekatuta dute.

Gainera, azken urteotan Siriatik horrenbeste iheslari ailegatu izanak egoera larriagotu egin die Libanon. «Egia da, orain arteko baldintzak txarrak ziren, baina egungoak jasanezinak dira», adierazi digu dendari honek. Gauza bat argi utzi nahi du: palestinarrak ez dute ihes egiten Europako irudiak ikusi dituztelako: «Alde egiteko gogoia eta beharra Siriako gerra hasi baino lehenagokoak dira».

Herrialde arabiarren batera joatea baztertuta dauka. «Herrialde horietan gu terroristak gara. Zerbait pasatuz gero, palestinarrak izan direla esaten dute. Guk ez dugu beraie dirurik nahi; duintasunez bizitzea besterik ez dugu amesten». Bere ustez, «herrialde arabiarrek porrot egin dute», palestinarek dagokienez. «Libanon ondo izanez gero, zertarako hartu horrelako arriskuak?», galdetu du, ume txikia besoetan duela.

Nadera BOUAZZA (Afp)

Orain, Zipren, hasierako planak aldatu egin behar izan ditu Zahra Zahrourek 84 urteko emakumeak, baina helburua ez: Greziako itsasertzera iritsi nahi du, milaka siriar, afganiar eta irakiarrek zabaldutako bidetik.

Fawzia Soltan siriarra Jordaniara iritsi berria da. Basamortuko leku batera ailegatu da, gerra eta miseria atzean utzi nahian, eta hautsak aurpegia erabat estaltzen dio. «Dirua dutenak Europara joaten dira, eta pobreari, Jainkoak lagundu diezaiola», adierazi digu 50 urteko emakumeak. Berak badaki herrialde industrializatuetako ateak itxita dituela.

Soltanek ez du Europara joateko aukerarik. Milaka siriar ikusi ditu Europarako bidea hartzen, baina berak beste zerbait pentsatu beharra dauka. Berrogeiren bat lagun iritsi ziren Jordaniara berarekin batera. Gehienak emakumeak eta umeak. Irailaren 10ean eman zieten Al Rokbane-ko pasabidetik herrialdera sartzeko baimena. Jordania, Siria eta Irakeko mugak elkartzen diren puntu honek ilargiko paisaiak ekartzen ditu gogora. Ez dirudi ego-
kia gizakiak hartzeko.

Jordaniara sartzeko leku bakarra da gaur egun, Ammango agintariak beste guztiak itxi egin baitituzte, segurtasun arrazoiak argudiatuta. Horixe esan ziguten bederen militarrek. Irailaren 10ean lehen aldiz kazetarien bisita onartu zuten, hori bai, «gidari» bat ondoan dugula.


Amman hiriburutik honaino iristeko 500en bat kilometro egin behar dira, ipar-ekialderantz. Kazetariok ibilgailu militar batean sartu gintuzten, bertara joateko. Bidaia oso deserosoa da, hautsa bazter guztietatik sartzen baitzaizu. Iheslariak bizi behar izan duten egoera ulertzen laguntzen digu horrek.

Jordaniako Armadak du mendean «harrera zentroa». Bertan erregistratzen dituzte errefuxiatuak. Ondoren, herrialdean zabaldu dituzten iheslari kanpalekuren batera eramaten dituzte.

JORDANIAK 600.000 SIRIAR HARTU DITU

Izan ere, orain lau urte Siriako gerra hasi zenetik, Jordanian kanpalekuak prestatu dituzte. NBE Nazio Batuen Erakundeak emandako datuen arabera, Siriako gatazkaren eraginez lau milioi herritar inguruk herrialdetik ihes egin du, eta horietako 600.000 inguru Jordanian daude. Sekulako karga, ia baliabiderik ez duen herrialdearentzat. Kopuru hori Europar Batasuna hartzen ari denarekin alderatuz gero (astelehenean 120.000 pertsona hartzeko konpromisoa adostu ezinik geratu ziren agintariak), oso garbi ikusten da benetako ahalegina egiten ari dena zein den.

Fawzia Soltanek ezin die malkoei eutsi Homs jaioterriko egoera gogoratzean: «Oso gaizki daude gauzak». Bere semea



Siriako herritar bat, aurpegia hautsak estalita, Jordaniako Ruwaishedeko kanpalekura iristean. Khalil MAZRAAWI | AFP

SIRIA

«DIRUA DUTENAK EUROPARA JOATEN DIRA, ETA POBREARI, JAINKOAK LAGUNDU DIEZAIOLA», DIO SIRIAR BATEK

orain bi urte sartu zuen kartzelan Bashar al-Assad en erregimenak, nahiz eta, amaren esanetan, iraultzan esku hartzen ez zuen. «Orain ez dut bere berririk. Bere bila alferrik ibili nintzen», adierazi digu.

Soltanek entzun du Europan oso ondo hartzen dituztela siriar iheslariak: «Berehala hartzen omen dituzte, soldata ematen diete, eta lo egiteko lekua, janaria, arropa», esan digu, Europako herrialdeetako agintarien arteko tentsioak eta desadostasunak aipatu ere egin gabe.

Ez da harritzekoa Ekialde Hurbileko iheslariak Europan gertatzen ari denari buruzko informazio okerra izatea, egun batean gauza bat esaten baitute agintariak, hurrengoan aurkakoa egin aurretik.

Soltan Assaden erregimenaren biktima izan den bezala, Ahmed Yacine ISIS Estatu Islamikoko jihadisten biktima da. 35 urteko gizonak emaztearekin eta alabarekin batera alde egin zuen Raqqa hiritik, jihadisten «hiriburutik» alegia. Berak ere noizbait Europara joateko aukera izatea espero du, «Alemaniara edo beste edozein herrialdetara», baina oraingoz kanpalekuan jarraitu beharko du. Ez du dirurik. «Noizbait baliabideak lortuz gero, bidaia egiten saiatuko naiz. Orain hemen aurrera nola atera pentsatu behar dut».

Ali Ahmedek ere Jordaniako basamortuan aurkitu du bere jaioterrian ez zuen lasaitasuna. Siriako iparraldeko Alepokoa da. «Ez genuen beste aukerarik. Hiritik

joatera behartuta geunden, bertako egoera dramatikoak baitzen», esplikatu digu. «Hamabost ordu egin ditugu errepidean. Ez genekien Jordaniako mugaraino iristerik izango genuenik», esan digu.

Anas Ibrahim ere Raqqakoa da. Zazpi seme-alabekin eta emaztearekin batera joan zen bertatik. Tibia-haustura hirukoitza eragin zion bonbardaketa batek eta orain makuluen laguntza behar du. «Nik ez dut ez Europara ez beste inora joan nahi. Lehenbailehen sendatu beste helbururik ez daukat».

Siriatik alde egiten ari direnen kontura batek baino gehiagok poltsikoa gizendu nahi du. Kasurik aipagarriena Françoise Olcayrena izan daiteke, frantses Estatuak Turkiako Bodrumen duen kontsularena. Greziako Kos uhartera joan nahi zuten siriarren txalupak eta salbamendu-jakak saltzen zizkien. France 2 telebista katearen salaketak kargutik kendu du.

Imed LAMLOUM (Afp)

Fawzia Soltanek entzun du Europan oso ondo hartzen dituztela siriar iheslariak: «Berehala hartzen omen dituzte, soldata ematen diete, eta lo egiteko lekua, janaria, arropa...», adierazi digu

LIBANO

PALESTINATIK IHES EGINDAKOAK HARTZEAZ GAIN, MILIOI BATETIK GORA SIRIAR SALBATU DITUEN HERRIALDEA

Aste honetan bertan Kirtsa Darizu giza mugimenduak Libanoko agintariak estutzeko mobilizazioak egin ditu Beirut hiriburuan, beren eskariei jaramon egin diezaieten. Lau milioi biztanleko herrialde txikiak oso krisi sakona bizi du hondakinen bilketa zerbitzua dela-eta (arrazoi horregatik hasi ziren mobilizazioak, baina berehala bestelako helburuak hartu zituzten, Arabiar Udaberria gogora ekarriz), baina Siriako gerratik ihesean datozen gizakiak hartzeko gauza izan da (1,1 milioi siriar daude egun Libanon, datu ofizialen arabera), bere garaian Palestinatik iritsitakoekin egin zuen moduan.

Gebran Bassil Libanoko Atzerri ministroak nabarmendu duenez, garrantzitsua da Siriatik ihes egin behar izan duten pertsonak ondoko herrialde arabiarren batean geratzea, gerra amaitu eta egonkortasuna noizbait itzultzen bada, errazagoa izango baita horiek beren herrietara itzultzea.

Beiruteko agintariek adierazi dute Siriako gatazkan esku hartu duten estatu guztiek lagundu beharko luketela iheslariak hartzeko garaian, eta ez zaie arrazoirik falta: Europak, Errusiak, Iranek, AE-

Libanoko egoera gaiztotzen ari dela-eta, Atzerri ministroak iheslariei Siriako «leku seguruetera» joateko eskatu die. Baina ondoko herrialdean ez dago horrelako lekurik eta siriarrek eskale bihurtzen ari dira Beiruten.

Bek eta Golkoko herrialde aberatsek gatazkan esku hartzen ari diren talderen bati laguntza emandakoak direnez, iheslarien egoera hobetzeko zerbait egitera behartuta daude, Beiruten egiten duten irakurketaren arabera.

Europa zertan ari den egunero ikusten dugu telebistan. Gutxiago aipatzen da ordea Golkoko estatuen erantzukizuna: dirua emateko prest daude, baina iheslariak hartzeko ez, beren herrialdeetan ezegonkortasuna eragingo luketelakoan.

ALEMANIAKO ENBAXADA

Libanon gaur egun duten egoera ulertzeko joan den asteko gertaera batek asko lagundu dezake. Iheslarien artean zurrumurru bat zabaldu zen: Alemaniak bidalitako itsasontzi bat omen zetorren, iheslariak bertara eramateko. Berlinek prentsa-ohar bat plazaratu zuen zurrumurruak zioena gezurra zela argitzeko. Alfer-alferrik: hiriburuaren iparraldeko Mtailleb auzoan dagoen Enbaxadara

Siriako ehunka iheslari joan ziren Alemaniak Beiruten duen Enbaxadara Europako herrialdeko itsasontzi handi bat zetorrela jakin zutenean. Etsipenak eragindako zurrumurru bat baino ez zen izan.

Joseph EID | AFP

ehunka siriar hurbildu ziren, Libanotik irteteko aukeraren bila. Siria uztean zuten dirua amaitu egin zaie eta nazioarteko laguntza ere murrizten hasia da. Alemania zen egun hartako itxaropen bakarra. «Ez daukat beste aukerarik», esplikatu zuen Wissam Youssefek. Berak orain lau urte utzi zuen Idleb, Siriako iparraldeko probintzia, gerraren eraginez, eta geroztik Libanon egon da bere lau seme-alabekin, baina horrela segitzetik ez dutela erabaki zuen. Alemaniara legeak errespetatu izan ez badu, itsasoko bidea hartzeko prest dago, oso arriskutsua dela badakien arren.

«Begiratu haur horren eskuak, ez dirudite ume baten eskuak, adineko batenak baizik», esan zien kazetariei Bekaako bailaran bizi den siriar batek. Eguzkiak erabat belztu dio aurpegia umeari eta eskuak patatak biltzen zaildu zaizkio. Lan egin beharra dauka, etxekoak aurrera atera ahal izateko. Egun osoa lanean emanda, bost euro jasoko ditu asko jota, bi euroren truke lanean ari direnak ere badaude-eta. Unicefen esanetan, Libanon, Turkian eta Jordanian Siriatik ihes egindako bi milioi ume inguru bizi dira. «Bizitza normala izatearekin egiten dute amets, baina badakite ez dutela horretarako aukerarik», azaldu du Soha Boustani NBEko agentziako buruak.

Siriatik Libanora joandako iheslarien heren bat (%35) Bekaa bailaran bizi da, mugatik gertu, baina gainerakoak hiri handietan daude. «Beiruten bazter guztietan ikusten dituzu. Kanean egiten dute lo eta laguntza eskatzen dute, eskale bihurtu baitira», jakinarazi du Gareth Richards Care erakundeko arduradunak. «Umeak leher eginda iristen dira Libanora, gerrak hunkituta. Guraseok, bizirik badaude, beraientzako bestelako etorkizuna aurkitu nahi dute, baina egoera oso zaila da hemen», erantsi du.

Siriako 400.000 ume inguru daude Libanon, beren ikasketak etenda. Libanoko Hezkuntza Ministerioak eta NBEko agentziek ume horien hezkuntza ordaintzeko konpromisoa hartu zuten, baina horietako 140.000erentzat baino ez da eskolarik izango. 2014an ere eskolara joan zirenek dute lehentasuna. Horiek Libanoko umeekin batera joaten dira eskolara leku batzuetan, kasu askotan 12 urteko umeak 8 urtekoekin nahasita. Tentsioak gora egiten du une askotan. Horregatik eskatzen die iheslariei Bassil ministroak Siriako «leku seguruetera» itzul daitezela, Libanoko bertako egoera aurki leher daitekeelakoan.



IRAK

BAGDADETIK BAVARIARA, IRAKEKO BIKOTE BATEN ETA BERE UME JAIOBERRIAREN ODISEA LAZGARRIA

France Presse agentziako talde bat beraiekin batera joan da Grezia eta Mazedonia arteko muga zeharkatu zutenetik. Bavaria Alemaniaren hegoaldean dago. Iritsi berrian, bizitza berriaren hasiera ospatu nahi dute. Tren eroso batean doaz, Viena-tik Munichera doazen exekutibo eta turistekin batera. Orain barre egiten dute, astebeteko odisea amaitu eta gero.

Ordu batzuk lehenago ikusi zuten, trenak zuen mapa batean, Alemanian zeudela, arriskurik gabe, alegia. «Lortu dugu, azkenean», esan zuen 27 urteko Ahmad-ek. Bagdaden zituen etxea eta arropadenda saldu zituen, Alia emaztea (26 urte) eta Adam txikia Europara eramateko. Aste luze horretan bikotea ia atxilotu egin zuten muga zeharkatzerakoan; gau bat kale gorrian pasatu behar izan zuten; beste batean lapurrei iskin egin zieten;

Azkenean ere! Iritsi dira Ahmad eta Alia Alemaniara, lau hilabeteko umea besoetan dutela. Atzean geratu dira Irakeko bikote honek bizi behar izan dituen zorigaitzak. Bonbetatik ihes egiteko, zuten guztia saldu zuten.

eskrupulurik gabeko trafikatzaleekin negoziatu izan dute; egun bat egin zuten eguzkitan kiskaltzen, Adam motxila batean zutela; gauean hotza pasatzea tokatu zitzairen; errenkadan jarri ziren agintarien aurrean izena emateko... Eta hori guztia, ia inolako laguntzarik jaso gabe.

AFPk ia 2.500 kilometro egin zituen bikotearekin. Oso bidaia arriskutsua, trenez, autobusez eta oinez egindakoa. Giza-kion aurpegirik txarrena ezagutu behar izan dute gazteek egunotan.

Hungariara sartzean, arnasari eutsi behar izan zioten, ilargiaren laguntzarekin trafikatzalearen atzetik oinez zihoazela.

Harrapatu eta erregistratuz gero, Europako iparraldeko estaturen batera iristeko aukerak murriztu egingo zitzaizkiekeen.

Alemanira iristeko 9.000 euro gastatu dituzte. «Ez dugu gauza handirik eskatzen: besteak bizi diren bezala bizi nahi dugu, tentsiorik gabe, estresik gabe, beldurrik gabe», dio Ahmad-ek leher eginda.

Iraketik ihes egiteko erabakia aspaldi hartu zuten, 2014ko otsailean. Orduan eman zioten elkarri ezkontzako hitza. Handik hamar egunera jatetxe batean afaltzen ari zirela, «leherketa bat izan zen eta edalontzi guztiak aurpegian txikitu zitzaizkigun». Zauriek utzitako orbainak

ikusten zaizkie oraindik, batez ere Aliaren aurpegian. Emakume hau Unibertsi-tateko irakasle baten alaba da, baina jihadistek ikasketekin jarraitzea galarazi zioten. «Eskolan nintzela, gizon armatu batzuek eraso egin zidaten. Hijaba (isla-miar zapia) jantzi ezean, hil egingo nindutela esan zidaten», dio kamiseta bat, jeansak eta kiroletako oinetakoak dar-matzen gazteak. «Gutxienez gure ame-tsetako batzuk betetzea espero dugu», esan zigun Serbian.

Aliaren gurasoek bidaia arriskutsuegia zela eta ez joateko esan zioten, baina gazteak ez zuen beste irtenbiderik ikusten. Turkian zeudela Greziara eramango zituen ontzia ikustean, Ahmad-ek ere Irake-ra itzultzeko esan zion Aliari. Emaztea-rentzat zein umearentzat gogorregia izango zela uste zuen. «Elkarrekin bizi edo elkarrekin hil, ez dago beste aukerarik», erantzun zion emakumeak. Baina Budapestera iritsi ziren goizean zalantza ugari sortu zitzaizkion, paperik ez izate-gatik hotelik aurkitu ezinik ibili ziren egunean. Trafikatzaleak putetxe batera sartzeko ahalegina egin zuen. «Ezin diot kontatu amari hemen bizitzen ari gare-na; atsekabe handiegia izango litzateke berarentzat», esan du begiak malkotan dituela. Beraien kontura aberastu nahi zuten pertsona asko ezagutu dituzte. Tra-



Afganistango herritarrak, Kabulgo eraikin ofizial batean, pasaporte berrien zain. Shah MARAI | AFP

AFGANISTAN

AFGANISTANDIK IHES EGIN NAHI DUTENAK ERE, EUROPARA BEGIRA

Mirwaisek hogeitau urte besterik ez ditu, baina erabakia hartua du: Euro-para egin behar du ihes, Afganis-tanen jarraitzea berarentzat arriskutsue-gia da-eta. Horregatik joan da Kabul hiri-buruko eraikin batera, bertan pasaportea egingo diotelakoan. Bere egoera berean dauden makina bat per-sona aurkitu ditu bertan, Asiako erdial-deko herrialde hau baita Europara pape-rik gabeko iheslari gehien bidaltzen dituenetako bat: bigarrena, Siriaren atzetik gaur egun.

«Uhateak zabalik daude, Europaraino iristeko gure aukerarik onenaren aurrean

fikatzailleak alde batetik, eta botila bat ur edo ogitarteko baten truke diru asko eskatzen zietenak, bestetik.

Hungaria utzi eta Austriara sartzean, larri ibili ziren mugan. Beraiekin zihoa-zen sei pertsona atxilotu zituzten. Une haietan, korrika ari zen aita jolasean ari zelakoan, umea barrez lehertzen zegoen.

Ihesean ibiltzearen eraginez, Alia umearentzako esnerik gabe geratu zen eta txikiak gogotik negar egin zuen. Ahmadentzat, egoera jasanezina. Aliak, berriz, alde ona ere ikusten dio bizitakoari: «Zenbat eta gogorragoa bidaia, orduan eta indartsuagoa da gure harremana».

Vienan bikotea seguru sentitu zen. Han izan zuten nora joan behar zuten aztertzeke lehen aukera. Kolonia hautatu zuten, bertan Ahmaden arreba bat bizi delako. Baina Munichen atxilotu egin zituzten, eta iheslariak hartzeko zentro batera eraman. «Leku hau leporaino dago, bi familia sartu gaituzte gela txiki batean. Iritsi ginen arropa bera dugu jantzita», kontatu du Ahmadek. Egoera horretan hilabete asko egin ditzakete, azken bolada honetan iheslari asko iritsi baita Alemaniara. Erabat lasaitzeko aukerarik ez, oraingoz.



Serene Assir (Afp)

Ahmad eta Alia, telefonoz Bagdadera deitzen, irailaren 3an Austriatik Alemaniara eraman zituen trenean.

Aris MESSINIS | AFP

gaude», dio afganiar gazteak. AEBetako Armadarentzat itzultzaile lanak egiten zituen ekialdeko Kunar probintziako base batean, baina alde egin behar izan zuen, talibanak erabat infiltratuta baitzeuden instalazio haietan.

Estatubatuarentzat lan egin duten beste afganiar askok bezalaxe, berak ere talibanen mehatxuak jaso ditu. Horiek igorritako eskutitz bat darama eskuetan, pasaporteak egiteko garaian lagungarri izango zaiolakoan. AEBetara joan ahal izateko bisa berezi bat eskatu zuen, baina ez du erantzunik jaso.

ALEMANIAKO HERRITARREN PANKARTAK

Aurreko astean, telebistan Alemaniako dozenaka herritar, pankartak hartuta, iheslarietara ongiatorria egiten ikusi zitue-nean, Mirwaisek pentsatu zuen ezin zuela horrelako aukera bat alferrik galtzen utzi, eta berehala joan zen bere pasapor-tea berritzera.

AEBetara sartzeko bisa iristen ez ba-zaio, eta ez dirudi iritsiko zaionik, Alema-niara joan nahi du, Iran eta Turkiatik ba-rrena. Ez du baztertzeko trafikatzaileraren bati dirua ordaindu behar izatea.

«Alditu dut Alemanian siriarrak izaten dutela lehentasuna, baina afganiarrok ere aukera ona dugulakoan nago», esan dio kazetariari pasaporteak egiteko bule-

goan zain dagoela. Itxaropen bera dute ondoan eserita dituen dozenaka lagunek.

Afganistango gatazkaren azken kapituluak orain 13 urte hasi ziren, AEBek herrialdea inbaditu zutenean. Talibanak kendu zituzten agintetik atzeritarren tropek, baina egonkortasunaren tankera-ko ezer eraikitzeke gaitasunik ez zuten erakutsi estatubatuarrak ezarritako agin-tari berriek, eta gerrak bere horretan ja-rraitu zuen. Etenik gabe. Atzeritarrak zi-ren agintari berrien sostengu bakarra. Baina Kabulgo Gobernuari laguntzen zion NATO erakundeak alde egin zuen Afganistandik, eta ondorioz herritar as-ko asilo politikoa eskatu dute Mendebaldeko herrialdeetan. NBEak emandako datuen arabera, iaz %65eko hazkundera izan zuen asilo politikoa eskatu duten afganiarren kopuruak, eta aurten joera in-dartu egin da eta 50.000 afganiarretik gora iritsi dira dagoeneko Europara.

Testuinguru horretan, Hamid Karzai presidente ohiak gazteei herrialdetik ez joateko eskatu die: «Herrialdean geratu

eta eraiki ezazue. Herrialde honek behar zaituzte».

«Jendeari geratzeko eskatzeak ez du ezertarako balio», Richard Danziger IOM Migrazioen Nazioarteko Erakundeko zu-zendariaren esanetan. Bere ustez, Afga-nistango agintariak ihes egin nahi dute-nekin zuzenean hitz egin beharko lukete, zerbait lortu nahi bada.

ETXE ATARIAN UTZITAKO MEHATXUA

Izan ere, Mirwais gazteak erakusten di-gun papertxoak ez du zalantzarako tarte-rik uzten: «Atzerriko fedegabeentzat lan egiteagatik lepoa moztuko dizugu». Tali-banek berari igorritako idatzia da. Etxeko atarian itsatsita utzi zuten. Oso kontuan hartzekoa, horiek askotan erakutsi baitu-te mehatxuak betetzeko gauza direla.

Tankerako hausnarketak eginda abiatu zen Kunduz Afganistango iparraldeko hi-ritik Mohamad, baina oraingoz bidaia Hungarian amaitu zaio, Serbiako muga-ren ondoan dagoen Roszkeko iheslari kanpalekuan. Hotza, gosea eta ezintas-

na jasan beharra tokatzen ari zaio: «Bu-rusiak behar ditugu gaua pasatzeko, den-datan hotza ikaragarria da-eta».

Mohamaden anaiak Alemaniako Ar-madarentzat egiten zuen lan Afganista-nen eta gaur egun Europako herrialde aberatsean bizi da. Berarengana joan nahi du anaia gazteak, baina Hungariako segurtasun indarrek harrapatu eta ber-tan sartu zuten, gutxieneko baldintzak eskaintzen ez dituzten instalazioetan.

Pakistandik, Siriatic, Iraketik eta Afga-nistandik ihes egindako familia ugari sartu dituzte kanpalekuan, lokatza nugu-si den puntuan. «Bizitza salbatzeagatik egin nuen ihes, talibanek mehatxatu egin naute-eta», azaldu du.

Hungariar segurtasun indarrek jarri dieten eskumuturrekoa erakusten dute iheslari batzuek, bisitariei tabakoa edo janariak eskatzeko, baina berehala hur-biltzen dira poliziak errefuxiatuei ezer ezin zaiela eman esatera.

Bidaiak porrot egiten duenean Kabul-go bulegoan zain daudenek ez dute ho-rrren berririk izaten. Bai, ordea, iheslaria nahi zuen lekura iristean. Haji Popalek 65 urte ditu. Bederatzi seme-alaba hazi ditu eta une honetan gauza bakarra du buruan: «Alde egin behar dugu».

Anuj CHOPRA (Afp)

Estatubatuarentzat lan egin duten beste afganiar askok bezalaxe, berak ere talibanen mehatxuak jaso ditu. AEBetara joan ahal izateko bisa berezi bat eskatu zuen Mirwaisek, baina ez du erantzunik jaso.



Unai Fernandez de Betoño
Arkitektoa

Gaztetxeen hirigintza-eredua

Donostiako Kortxoenea gaztetxean egunotan jazotakoak Bilboko Kukutzaren eraisketa autoritarioa, jada lau urte betetzear dagoena, ekarri digu gogora. Eta paralelismoak egon badaude. Baina gertaerak Tabakalera distiratsua- ren irekierarekin bat egin duenez, kasualitatez edo ez, antzekotasunak beste gaztetxe gogoangarri baten desegitearekin ere bilatu behar ditugu: 1992ko amaieran zerratutako Bilboko Alde Zaharrekoarekin.

Izan ere, Josu Ortuondo alkateak gazteek «behetik» kudeatutako Espainiako Bankua kaleko gaztetxea hustu eta lau urtera, Udalak berak «goitik» kudeatutako kontzertu-areto bat ireki baitzuen handik 400 metrora: BilboRock. Autokudeaketaren eta horizontaltasunaren ereduaren aurrean, hortaz, hierarkia instituzionalak gaina hartu zuen, jabego ukiezina- ren betiko aitzakiapean. Zeren eta Mesedeetako elizak ere bazuen jaberik, baina hori ez zen oztopo izan Udalak hura erosteko eta bertan Bilborock ezartzeko.

Kortxoenea dagoen Indianoene kaletik 1.200 metrora ireki duten Tabakalera «kultur ekosistema» apailatzeko eraikina ere Altadis enpresari erosi egin behar izan zioten Donostiako Udalak, Gipuzkoako Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak, 8,5 milioi euroren truke. Udal-erosketaren formula hori erabil liteke Espainiako Bankua kaleko zein Kukutza edo Kortxoenea gaztetxeen kasuetan ere. Akaso, ez da hoberena izango, baina aukera bat da. Gasteizko gaztetxearekin bere garaian egin bezala. Bi kultur ereduak baitira beharrezkoak gure hirietan: ofiziala zein alternatiboa.

Kortxoenea eraisteko berriz ere jabego pribatu santuaren aitzakia erabili baita. Eta, bide batez, aurreko udal gobernuari bota zaio guztiaren errua: «Kortxoenearen eraistea aurreko legealdian onartutako hirigintza-proiektuaren ondorio» dela lau haizetara zabaldu du Eneko Goiaren gobernu taldeak. Baina ez da egia. 2010ean onetsitako Plan Orokorrean jada onartuta baitzegoen partzela horretan 1.812 m²ko etxebizitza eraikin bat egitea. Luxuzko 21 etxe, guztira.

Donostiako Udalak, gainera, 623.748 euro jaso ditu, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren arabera, Kortxoenea biltzen duen Ordoñez-Manteo eremua birpartzelatzeko eskubidea emateagatik. Zergatik ezin da dirutza hori gazteen autokudeaketan oinarrituko den kultur ekipamendu publiko bat osatzera bideratu?

Gaztetxeen sareak egikaritzen duen hirigintza-eredua ez zaiolako batere eroso eskuineko botere demokrata kristau erregionalistari. Bereziki, kapitalismoaren ereduarekiko oso kritikoa delako.

Norbaitek esan bezala, benetako ekosistemaz hitz egin ahal izango dugu Kortxoenearen eta Tabakaleraren moduko ekipamendu soziokultural anitzek herri berean batera bizitzeko aukera duten egunean. Eta hori ez da berez sortzen. Landu egin behar da. 2016ko kultur hiriburutzak horretarako aukera egokia zirudien. Bestela, zer nolako sinisgarritasuna edukiko dute «kultura alternatiboa eta oinarritik sortutakoa bultzatzera bideratutako 100 ekintza artistiko» bezalako ekimenek? •



Ilustrazioa: UNAI FERNANDEZ DE BETOÑO

{ asteari zeharka begira } **Mikel Zubimendi**

Iruzkin batzuk eta ideia bat bueltaka eta berriz bueltaka

rakurri dudanez, beste buelta bat eman behar omen zaio ezker abertzalearen estrategiari; “Zutik Euskal Herria” hark marraztu zuen bidearen potentzialtasun osoa esplotatzeko. Ez dituela espero zitezkeen erantzun guztiak ekarri; ez dagoela, satorrak egin legez, buztanaren truke begiak saldu eta dituen arazo-ei ez ikusiarena eginda, lur azpian itsu bizitzerik. Txalotzekoa iruditzen zait ahalegin hori. Neure partetik, iruzkin batzuk eta ideia bat nabarmendu nahi ditut.

Hasteko, marmarrak burrunba eta purrustak purrustategi gustuko dituztenen kontrako jarreraz, ezinegonak baztertu eta desesperazio izpirik gabe egin behar dela uste dut. Konbentzituta, esperantzaturik saiatu behar da, horrela dagoenak eginda egotea baino, egin egin nahi duelako. Joera bipolarra, teleberri batean depresiotik euforiara, idorretik tirrinerara, pasatze horren kultura politiko etxekaltea albortuz. Larritasuna aitortuta baina larriminik gabe, berehala, bat-batean, den-dena konpontzeko antsietaterik gabe, beste gauza batzuk egin behar direla esateke, beste batzuek egingo dituztela itxaroteke.

Begirada altxatu eta urrutiko gogomira behar da, arnasa luzea, beharrezkoa den horizonteaz jabetzeko denbora hartzea. Aitortuz bide berriak egin duena sekulakoa dela, politika egiteko muturreko baldintza horietan, probokazio eta zailtasun guzti horiekin aurreratu denari balio osoa emanez. Gogoratuz bagenekiela bide berria ez zela aurrekoa baino errazagoa, etengabeko aurkikuntza batean murgiltzen ginela, pronostiko ziurrik gabeko abentura batean.

Templea behar da, lasaitasuna. Errealitate aldakorari pega-pega eginda, epe motzean erantzun praktikoak emateko zentzu pragmatiko bat. Eta epe luzeago batean jokatzeko den apustu independentistak dakarren antagonismoari ekitea, intentsitate eta boltaje politiko handiz jokatzeko. Eta hori guzti hori, printzipioetan eta idealetan sendo eutsiz, horiek galduta ezerezean galduko ginatke-elako. Hori bai, ahal bada bi printzipio hautatuta nahikoa, eta hor, betiko lez, bietan jarrai: ihia bezala sendo sustraitua eta haizeetara moldagarri. Bestela, printzipioak kontaezin eginda, maniobrarako mugikortasunik gabe, txiki-munduen lobbyetara makurtuta, ildoak eta bere potentziala gratatuta uzten delako.

Hartara, hau guzti hau bezain inportante eta presoak askatzea edo independentzia lortzea baino ariketa zail eta korapilatsuagoa iruditzen zait mentalitatearen iraultza egitea. Estrategia eta paradigma aldaketa hitz serioe-
giak baitira, erabili behar ez den tresna bat erabiltzeari utzi, eta txalo-pin-txalo, dena perfektu, bide onean garel-
a pentsatzea baino harago doa. Kaskarrean, buruan, egin behar dela iraultza hori uste dut... Baina, nola? Baneki!

Ez da erraza. Hasteko, sarri, mentalitateak anbar puska batean harrapatutako intsektu prehistorikoen antza duela-
lako. Teknologia eta beste ziztu bizian alda daitezke, baina neurozientziak argitara ekarritako buruko misterioek diotenez, gure garunen funtzionamendua ez da milaka urteetan apenas aldatu eta pertsonek bizitzaren zikloan ez da askorik aldatuko. Iraultza horrek, halaber, beharrezkoak diren maila askotako kontraesanak sortzen ditu: pentsatzeko moldea eta geure buruaz pentsa-

Burua zergatik dugun borobila beti presente: autoek eta autobusek zirkulazio errotondetan bezala, gure buru borobilean, ideiek, eskemek eta pentsamenduek zirkulatu eta norabidez aldatu ahal izateko

tzen duguna aldatzea eskatzen du, geure ezezkoiei, ezinei eta errakuntzei begietara begiratzea, orain arte egindako gauza asko egiteari uztea eta, gainera, zailtasuna biderkatuz, hori guztia orain arteko jende berak egitea.

Konformatzen naiz, ordea, burua zergatik dugun borobila beti presente izango bagenu: autoek eta autobusek zirkulazio errotondetan bezala, gure buru borobilean ideiek, eskemek eta pentsamenduek zirkulatu eta norabidez aldatu ahal izateko. Eta marmarraren marmarrean, beti kontu berean bueltaka eta bueltaka aritzen garel-
a itolarria sentitzean, argi-keinukariei eman, bide eta ideia berriak hartu, eta sueto eta libre abiatzeko.

Mentalitateen iraultzarako, hortaz, kultura politiko eta lagunarte berri baten ardatz, uste dut abiapuntu balekoa dela gure buruen borobiltasunaz jabetzea eta hori aprobetxatzen jakitea. •

BURDIN HESIAREN AZTARNAK BILTZEN HASI DA LARRABETZUKO HERRIA

Nerea GOTI

Burdin Hesiaren inguruetan mendi lasterketa baten ibilbidea antolatzen ari zirela, gerrako aztarnak agertzen hasi ziren. Aurkitutakoaren dimentsioa ikusita, Aranzadirengana jo zuen Karraderan elkartek. Egun, lanean jarraitzen dute Udala eta zientzia elkartearekin hitzarmen baten baitan, oroimena «herriari itzultzeko».



Arrazoi askogatik xarma berezia du Larrabetzuko herriak hartu duen erronkak. Oroimen historikoa berreskuratu nahi dute, 1936ko gerran giltzarri izan zen inguru batean. Gertatu zenaren oroimena gordetzearekin batera, egia, aitortza... ere nabarmendu nahi dute, hamarkadetan isilean baina ahortzi gabe gorde dena azaleratzeko. Beste ezaugarri garrantzitsu eta berezi bat du proiektuak. Bultzatzaileek diotenez, «herriak herriari» itzultzea da asmoa, eta bide horretan hitzarmen bat sinatu dute Aranzadi eta Udalarekin, «1936-1945 urteen artean Larrabetzun gertatutako giza eskubideen urraketa ikertu eta oroimen historikoa lantzeko».

Ekimenaren abiapuntua ere bitxia da. Kontatzen dute orain bi urte inguru, mendi martxa bat antolatzen ari zirela, sortu zela asmoa. Gerora ideia hori gorpuzten joan da egun martxan duten egitasmoa biribildu arte. Pentsatu zuten Euskal Herrian mendi martxa ugari antolatzen zirela eta Larrabetzu inguruko mendiek altxor handi bat gordetzen zutela, hots, Burdin Hesiaren aztarnak. Bi elementu horiek nolabait bat egin behar zutela pentsatu zuten; kirol proba bat bai, baina historia gordetzen duen ibilbide batetik. «Goazen zeozer ezberdina egitera, ez dadila izan kirol proba huts bat, lehiaketa hutsa, aprobeitza dezagun Larrabetzun daukagun hau», komentatu zuten Karraderan elkartean. Abiapuntua eta filosofia finkatuta, ibilbidea zehazten ari zirela aztarna berriak agertzen hasi ziren. «Ikusita gero eta gehiago agertzen ari zirela, Aranzadira jo genuen, ez baikenekien oso ondo hura guztia zelan kudeatu», azaldu dio Gaur8ri Ainhua Larrabe Karraderan elkarteko kideak.

Jakin-minak erreta, Gaur8ren hurrengo galdera zer aurkitu zuten izan zen halaberharrez. Esan zigutenaren arabera, defentsarako harresiaren egitura ezagunaren ondoan, basoan, lubaki eta galeria ugari dago, eta egitura horiez gain, beste aztarna batzuk agertu dira inguru horietan azken hilabeteetan.

«Gauza da, sasi-garbitzeko makina hartuta sastraka artean sartu zela lagun bat eta lubaki bat aurkitu zuela; apur bat aurrerago begiratu eta zulo baten aho handiago bat eta, behin horretan sartuta, konturatu zen horman balak ikus zitezkeela oraindik, plater bat ere aurkitu zen...», kontatu zuen Larrabek. Dioenaren arabera, gehienak ez daude begi bistan, asko estalita daude, «lu-

Lerro hauen ondoan, Basagunean dagoen gotorlekua eta agintepostua, eta Bolunburun aurkitutako meazuloak. KARRADERAN ELKARTEA



rrrek janda» eta ondotik pasatzean ondo arretaz begiratzen ez baduzu, animalia baten gordelekua izan daitekeela pentsa dezakezu».

Lubakien arteko lurpeko pasabide horiek 'T' forma dute eta kasu batzuetan mendiaren beste alboan dute irteera. Antza, lubakien artean egokitzen zituzten egiturak dira, gordetzeko, ihes egiteko. Urteetan lurrak eta sastrakak estalita egon zena **irudikatu zitzaion** berehala, bunkerren arteko lotura eta pasabidez beteriko lurpeko egitura handi bat. Imaji-

natzekoa da horrelako aurkikuntza batek sortuko zuen zirrara, eta Larrabek baieztatu zuenez, egitasmoa lotzeko eta gehiago bilatzeko pizgarri bat izan zen Karraderan elkarteko kideen artean.

PARAJE ESTRATEGIKOA 36KO GERRAN

Kontua da asko aurkitu dutela eta beste aurkikuntza asko egitea espero dutela orain arte atzemandakoa ikusita. Tokiak berez informazio ugari eman dezake, Larrabetzu inguratzen duten mendiak elementu estrategiko baten zati garrantzi-

tsu bat izan zirelako. «Hemen kokatzen zen defentsa lerroa eta hemen egon zen bataila bortitzenetako bat», esan du Larrabek.

Billboko Artxanda mendiak, Galdakako Gangurenek eta Larrabetzuko Bizkargik eta Gaztelumendik osatzen zuten hiriburuaren inguruko Burdin Hesia defentsa-lerroa, baina askoz zabalagoa ere izan zen. Euskal Herriko historian zehar hainbatetan gertatu bezala, basoak elementu estrategikoak izan ziren eta, ondorioz, iragan horren lekuko bilakatu-ta, informazio zabala gordetzen dute, Larrabetzun baieztatzen ari direnez.

Larrabek azaldu duenez, garaiko mape-tan, Eusko Gudarostearenetan, lubakiak agertzen dira baina ez galeriak eta koba-zulo antzeko horiek. Horregatik lehenda-biziko lanen artean Karraderan elkar-teak eta Larrabetzuko herritarrek sortutako boluntario taldeek aurkitzen duten hori katalogatzea dago. Lehen pausoa, beraz, azterketa sakon bat egitea da, zehazteko «zer aurkitu dugun, lubakiak eta bunke-rrak non dauden... eta mapa baten gaine-an pentsatu, zeren balioa agerian jarri oraingoz, epe ertain eta epe luzera begi-ra».

Bolunburuko inguruak garbitzen ibili dira orain arte, hasteko errazen duten gunea delako, «eskuragarriagoa». Baina, Gaztelumendin sartuko dira gero, eta zo-naka egin beharko dute inguru hori. Mendi horren inguruan, bertan oraindik oso begi bistan dagoen monolitoa aipatu du larrabetzuarrak. Erresistentziaren ikur den *nido de ametralladoras* izeneko-aren ondoan, «justu horri begira, Bizkar-gira begira, sartu ziren tokitik frankisten garaipenari gorazarre egiten dion mono-litoa dago oraindik».

HISTORIA KONTATZEA TOKATZEN ZAIGU

«Erreferentzia izan dugu, baina historia kontatzea tokatzen zaigu», esan du Larra-bek esku artean duten erronkaz. «Argi dagoena da Gaztelumendikoa hormigoia dela, ikusten dena, baina lubakiak eta lurpean dagoena atera nahi dugu», ze-haztu zuen.

Inguruko basoetan gertatu zena urtee-tan gogoan gorde dute herritarrek; herri-ko elkarte batek bultzatuta, hainbat eki-men egin izan dute orain arte memoria bizirik mantentzeko, eta etxeetan orain-dik bildu ez den informazio zabala egon daitekeela uste du Larrabek. «Herritarrek esaten dizute ez dakit non fosa edo hobi bat dagoela», baina beste lan bat falta da: adineko jendearen artean egon daitezke-en testigantza horiek guztiak biltzea.

«Ez gara adinduengana joan galdetzer



Goiko irudian, Gaztelumendiko metrailadore habia. Karraderan elkarteko ordezkarien azalpenen arabera, horrelakoek txapel bat izaten zuten, baina Gaztelumendiko honek ez du, antza denez bukatzeko astirik izan ez zutelako.

KARRADERAN ELKARTEA

ea zer bizi izan zuten, zer dakiten edo etxean zer entzun zuten, eta hori da egin beharko genukeen lehen gauza, zeren ge-ro eta gutxiago dira bizirik daudenak, ta-malez».

Ohartu dira, bestalde, jendeak «beldu-rragatik eta musturak itxi dituelako» is-torio batzuk etxean gorde dituela eta fa-miliek askotan izan dutela informazio hori baina ez dutela transmititu. Horre-gatik garrantzitsua da horiei «mikrofo-noa ipintzea». Hori lehentasunezkoa de-la nabarmendu du.

Elkarriketaren puntu horretara heldu-ta eta jakinda aurkikuntzen artean gor-puzkiak ere izan direla, Mendatako kasua aipatu du Karraderaneko ordezkariak. La-rrabetzuko auzokide bati esker identifi-katu zituzten Marmiz auzoan topatutako gorpuzkiak. Hildakoaren familiak baze-kien gorpua inguru hartan zegoela eta «gurutze bat zuten ipinita». Hara joaten ziren maiz, etxekoa oroitzera. Garai har-tan bertan bizi zen baserritarrak gogora-tzen zuenez, Pedro Uriguen izeneko gu-dari zornotzarra zaurituta hara heldu eta

frankistek bertan akabatu zuten. Beldu-rrak jota, baserritarrak berak lurperatu zuen eta han egon da hamarkadetan.

MENDATAKO EMOZIOAK

Joan den abuztuan bertan atera zuten lurpetik arkeologoek Otxandio batailoiko gudariaren gorpua, familiaren aurrean, herritarren eta instituzioen ordezkarien parte hartzea izan zuen ekitaldi batean. «Joan ginen eta, benetan, hantxe zegoen, bere balinak, zorroarekin... ez zuen txa-parik eta orain Aranzadik frogak egin be-har ditu identifikatzeko», kontatu du La-rrabek, eta ez du ezkutatzen momentuan bizitako emozioa, senideak aurrean zi-tuela, jakinda urteetan hara joaten zirela omentzera. «Zelako esker ona erakutsi zuen familiak... esperientzia itzela izan zen niretzat», aitortu du.

Bestalde, gizartean «sekulako ezjakin-tasuna» ikusten du gorpuen berreskura-pen prozesuei dagokienez. Esan zuenez, kasu batzuetan jakin bazekiten gorpuz-kiak toki zehatz batean egon zitezkeela baina prozesu guztia familiaren kargu gera daitekeela pentsatuta, erantzukizu-na etxekoen bizkar gera daitekeela, isto-rioa etxe barruan geratzen zen; «egia janda, han daude eta listo». Horregatik, argi utzi nahi izan du larrabetzuar gazte-ak «erantzukizuna guztiz kolektiboa» de-la eta Jaurilaritza eta Aranzadiren babes-a dagoela.

HEGAZKINAREN ARRASTOAREN ATZETIK

Bilaketak aurrera jarraitzen du, eta aste-buru honetan eguraldi ona egingo duela-eta, segur asko, Whatsapp bidez geratuko dira basora itzultzeko. Ekimenak piztu duen interesa, jakin-mina... emozio asko-ren iturri bilakatu da eta ez litzateke ha-rritzekoa inguruko bizilagun askok Ka-rraderan elkarteko kideengana jotzea etxean hau edo bestea entzun dutela ai-patzera, aitite-amamek ez dakit non ger-tatu zela ez dakit zer kontatzen zutela... eta horretaz galdetuta, Larrabek «ahoz ahokoan oso ezaguna» den gertaera eka-rri du gogora, Bolunburu inguruan jazo zena. Ezaguna da «asturianoen fosa» ize-nez ezagutzen den bat hantxe dagoela; urtero omenaldia egiten da, baina «ez dugu topatzen».

«Beti entzun dugu eta esaten digute in-guru horretan egon behar dela, baina oraingoz ezin izan dugu tokia identifika-tu», esan du Larrabek. Garrantzizko aur-kikuntza izango zen hori. Frontea apur-tuta, faxisten erasoari aurre egin zioten hildakoak dira miliziano asturiarrak, eta Bolunburu inguruko lubaki batean lurpe-ratu zituzten.

Mendi lasterketa antolatzen du Karraderan elkar-teak Larrabetzu aldeko mendiek gordetzen duten historiaren balioa agerrarazteko, Burdinazko Harresian Karraderan Mendi Lasterketa, «gure historiaren 31 kilometro»

Ibilbidea prestatzen ari zirela, sastraka artean aztarnak agertzen hasi ziren. Lubakiak, meazuloak, balak ageri dituzten hormak, plater bat eta gorpuzkiak aurkitu dituzte basoan lanean aritu diren herritarrek

Duela bi urte, Larrabetzuko Udalbatzak «ohorezko herritarrak» izendatu zituen miliziano asturiarrak eta beraien omenezko monolitoa inauguratu zuten.

Bada beste testigantza bitxi bat herrian, Heinkel hegazkin alemaniar bat jausi omen zelako Larrabetzun. «Garbitzen genbiltzala, hara non agertzen zai-gun baserritar bat esanez badakiela hegazkin horren hegala non dauden, horrelako gauzak egun batean bai eta bestean ere sortzen dira», azaldu du Larrabek. Hori lokalizatzen ere saiatu beharko dute hurrengo hilabeteetan.

«Hegazkina badakigu non dagoen, baina horretarako georradar bat erabili beharko dugu, ziurtatzeko hegazkinaren aztarnak hor daudela, eta horrek aurrekontua igotzen du». Dioenaren arabera, metalak lokalizatzeko tresnarekin ibili dira «ea balinek edo txapek pitatzen zuten», baina oraingoz ez dute ezer lortu.

HERRIARI INFORMATU

Aurreko astean bertan herri batzar bat egin zuten Larrabetzun ekimen honen inguruan. Herrian ezaguna da egitasmoa eta Aranzadiren, Udalaren eta Karraderanen arteko hitzarmenaz ere informatu zen, helburuak plazaratzeko, ikerketaren nondik norakoak... Akordioa udaberri aldean sinatu zen, baina ondorengo hilabeteetako lanek jakin-min handia piztu dute herrian. Larrabek dioenez, ikusita plazan biltzen zirela aitzurra eta gainontzeko makineriarekin ... beharrezko ikusten zuten informazio gehiago ematea.

Gauzak horrela, orain arte egindako lan guztia azaldu zieten herritarrei, zelan ibili diren basoan bazterrak garbitzen eta

Larrabetzuko Udalak, Aranzadi Zientzia Elkarteak eta Karraderanek sinatutako hitzarmen baten baitan ari dira lanean herritarrak aztarna berrien bila, era sistematizatu batean eta metodo zientifikoa erabiliz

Bilboko Burdin Hesia defentsa-lerroa Gaztelumendin apurtu zuten tropa frankistek, eraso bortitz batean. Adituen ustez, erresistentzian desagertutako gudarien gorpuak ager litezke martxan dagoen proiektu honi esker

konturatu ziren dimentsioari dagokionez, herritarrek ez zutela uste hain proiektu mardulean murgilduta zeudenik.

Oso harrera ona izan zuten azalpenek. Batzarrean 80 lagun inguruk hartu zuten parte, eta deialdi berriak izango dira las-ter helburu zehatzagoekin. Proiektuan parte hartzeko ateak zabaltu nahi dituzte eta informazio praktikoagoa eman, baina tarte bat zabaltu dute herritarrek honen guztiaren gainean hausnartzeko astia izan dezaten.

«Aurkezpen batera deitzen zaituzte, kristoren proiektu potoloarekin eta horren digestioa egin behar da», esan zuen Larrabek. Horregatik, hurrengo batzarretan lan egin nahi dutenei «ekarpena zelan egin azaldu, basolanak sistematizatu egin behar dira...» eta aseguruak egin behar dira, izango duten lanean ez dakitelako zer aurkituko duten, eta kontu handiz ibili beharko dute jakinda granadak, obusak eta gisakoak egon daitezkeela basoan. Kontu horietan heziko dituzte basora abiatu aurretik.

Abuztuan bertan jardunaldi teoriko-praktikoak antolatu zituzten herrian Aranzadiren zientzialarien laguntzarekin, auzolanean basoan dabiltzan boluntarioentzat. Pako Etxebarria forentse ospetsuak berak zuzendu zuen boluntarioen lana basoan. Dauden haztarnak behatu zituzten eta proiektua definitzeko balio izan zuen asteburuko egonaldiak, lehentasunak zehaztu eta proiektuaren koordinazioa antolatzeko. Orduan erabaki zuten irailean herritarrekin batzar informatiboa egitea, egindako lana zehaztu eta hurrengo urrats berriak denon artean erabakitzeko.

ERAKUNDE PUBLIKOEN BABESA

Badago, bestalde, kontuan hartu beharreko beste errealitate bat. Basoan egiten ari diren lanetan ez dabilta beti lursail publikoetan eta hori batzuetan arazo iturri izaten da. Larrabetzun, aldiz, Larrabek azaldutakoaren arabera, «oso harrera ona» izan dute eta laguntzeko prest zeuden jabeekin topo egin dute orain arte. «Ez digute oztoporik ipini», dioenez, baina kontua da epe luzera begira kultura ibilbideak zehazteko orduan, panelak ipintzeko... horrek beste dimentsio bat hartuko duela, eta jabego pribatuekin elkarlanean aztertu eta landu beharreko gai bat izango da.

Egitasmo honetan herritarrek lana eta dedikazioa jartzen dute, Aranzadi elkarteak ekarpen zientifikoa egiteko orduan egiten duen bezala, baina badago hirugarren zutabe bat, Udala, eta alde horri dagokionez babesa «itzela» izan dela nabarmendu du Larrabek: «Inplikazioa %100ekoa izan da».


Larrabetzuarrak basoan barrena, inguruneak arakatzen aztarna berrien bila.
KARRADERAN ELKARTEA



Aipatu du, halaber, Lakuako Gobernua-
ren laguntza ekonomikoa izan dutela,
egindako eskaera onartu eta horri eran-
tzunez. Karraderan elkarteko kideak esan
duenez, azken batzarrean argi utzi zuten
«hau herriaren proiektu bat» dela. Na-
barmendu duenez, «Larrabetzu herriaren
egitasmoa da eta babestu beharko lukete
herritarren zerbitzuplean, ez proiektua
hipotekatu dirua lortu ahal izateko».

Udalak parte hartze zuzena du egitas-
moan, baina protagonismo osoa herrita-
rrengan utzi nahi du Bilduren gobernu
taldeak. Iñigo Gaztelu alkateak nabar-
mendu duenez, Udalaren ikuspuntutik,
epe luzera begira «proiektu estrategiko
bat da herriarentzat» eta Udalaren lagun-
tza guztia dauka».

«Argi daukagu bultzatu beharreko eki-
mena» dela adierazi du Gazteluk, eta
«herritarrek erakutsitako inplikazioa»
laudatu zuen. Bide horretan, azaldu du
Udalak «laguntza guztia» emango duela
ekonomikoki eta bestelako baliabideak
herri ekimenaren eskuetan jarritz. Gazte-
lu ere basoko lanetara hurbildu zen abuz-
tuan, Aranzadiko adituek jardunaldi be-
reziak eskaini zituzten asteburu batean,
bilaketa lanak sistematizatu eta herrita-
rrei egin beharrekoaren inguruko presta-
kuntza emateko jardunaldietan.



Karraderan taldeko kide batzuk,
meazulo baten sarreraren gainean;
horien artean, egungo Larrabetzuko
alkate Iñigo Gaztelumendi (bigarrena
eskuinetik hasita).
KARRADERAN ELKARTEA

ARANZADI: «POTENTZIALITATE HANDIKO GUNEA DA LARRABETZU»

Aranzadi elkarteko idazkari nagusi Juantxo Agirre Mauleonen esanetan,
Larrabetzuko egitasmoa «potentzialitate handienetako bat» da Euskal Herrian
oroimenaren berreskurapenari dagokionez. «Hasierako bi baldintza oso onak
ditu: Udalaren borondate politikoa eta oso aktibo eta gogotsu dabilen giza talde
bat Karraderan elkartearen aurrean», azaldu du. Gaineratu du «bi oinarri
horiekin» posible dela beste herrietan lantzen ari dena lantzea: «Idatzizko
dokumentazioa eta ahozko testigantzak jaso eta bildu, monografiko bat atera eta
dokumentazio hori herritarren esku jartzea, hori guztia metodologiarekin
egina». Izan ere, hitzarmen esparru bat sinatu dute, eta horren barruan lan
egiten ari dira Udala, Aranzadi eta Karraderan elkartea.

«Hiru hanka horiekin, ikuspegi anitz horrekin, Larrabetzu erreferente bihurtu
behar dugu, oroimena berreskuratzeko zientziaren begitik eta herriaren parte
hartzearekin», nabarmendu du.

Larrabetzun ager daitekeena, gainera, ez da edonolakoa eta hori ere oso
presente du Aranzadik. Agirre Mauleonek dioenez, «oso aparteko aztarnak»
daude inguru honetan beste herri batzuekin alderatuta. Altxamendu
frankistaren aurkako erresistentziaren gunea bat izanik, lubakiak, bunkerrak,
gatazkaren aztarnak kontserbatu dira, baita horrekin lotutako metalezko
objektuak ere, «baina potentzialitate handiarekin» agertuko dira «erresistentzia
horretan desagertutako pertsonen gorpuak» eta «horiek aztertu, identifikatu eta
herriari bueltatu» behar zaizkio. Txorierriko udalerriaren ondoan, Lemoatz
inguruan, egiten ari diren lanak aipatu zituen, han ere aztarna ugari dagoelako.

Aranzadiko arkeologoak bereziki aipatu du «sekula» ez dutela ikusi ez Euskal
Herrian, ezta nazioartean ere, kirol proba baten bitartez oroimena
berreskuratzen duen hau bezalako ekimenik. «Adierazgarria da» erakusten
duelako «zer nolako gogoia eta iniziatiba dagoen», azaldu du.

Bihar hiltzen nautenean...

Aita, ama: Bihar goizean exekuta-
tuko naute. Animoak eman nahi
dizkizuet. Pentsatu ni hilko naize-
la baina bizitzak jarraituko duela.
Oroitzen dut zure azken bisitan, aita, au-
sarta izateko erran zenidala, galiziar on
bat bezala. Izan naiz, segurtatzen dizut.
Bihar fusilatzen nautenean, begiak ez es-
taltzeko eskatuko dut, heriotzari parez pa-
re begiratzeko...». Xose Humberto Francis-
co Baena Alonsoren agur hitzak dira,
1975eko irailaren 27an fusilatuta hil baino
ordu batzuk lehenago gurasoei eskainiak.
Aste bat gehiago eta 25 urte beteko zituen.
FRAPeko hiru kide, Baena bera, Jose Luis
Sanchez-Bravo Solla eta Ramon Garcia

Sanz; eta ETako Jon Paredes Manot Txiki
eta Angel Otaegi Etxebarria hil zituzten
egun horretan. Frankismoaren azken exe-
kuzioak izan ziren.

«Ahanzturaren kontrakoa ez da memo-
ria, egia baizik», idatzi zuen Juan Gelman
poeta argentinarrak, eta baieztapen horri
jarraituz, egiara hurbiltzen ahalegindu da
Carlos Fonseca kazetari eta idazle madril-
darra “Mañana cuando me maten” libu-
ruan. Nobela baten antzeko idazkerarekin
harrapatuz, 1975eko irailaren 27ra erama-
ten gaitu. 40 urte, heldu den igandean. Ze
hurbil batzuentzat eta ze urrun bertzeen-
tzat, zer erranik ez krimen haiek ezagu-
tzea nahi ez dutenentzat, batzuentzat 1975

bukaeran hasten baita historia. Baina zerk
osatzen du historia?

Fonsecak dioenez, historialariak doku-
mentuez fidatzen dira ahozko testigantzez
baino gehiago, hauek pertsonalak direla-
ko, baina zer da historia esperientzia per-
tsonalen batuketa ez bada? Idazlearen iri-
tziz, ahozko eta idatzizko iturriak elkartuz
soilik hurbil gaitzezke historia errealera,
alegia, egiara. Agian, istorioak gutxietsi di-
tugu Historiaren aitzinean. Agian, uste
baino hurbilago dugu historia. Eta, segu-
ru, istorio guztiak aintzat hartuta osatu
beharko dugula kontakizuna, baita isildu
eta zigortutakoak ere, Luzia Urigoitia
otxandiarraren memoria, kasu. •

Maiden lantzi

LUR AZPIKO ABENTURAK



Amaia
BALLESTEROS

TABAKALERAREN METAMORFOSIA

irudietan jaso du Idoia Unzurrunzaga argazkilariak

Ikuspuntu pribilegiatua izan du azken lauzpabost urteotan Idoia Unzurrunzaga argazkilariak. Donostiako Tabakalerako obren bila-kaera argazki bidez jasotzea izan da esku artean izan duen egitekoa. Espazio erraldoia hustu zenetik iragan ostiralean inauguratu zenera arteko eraldaketa prozesua jaso du 1.320 argazki baino gehiagotan. Horietako asko segidak osatzeko erabili ditu eta, beste asko, berriaz, une edo detaile bereziak jasotzeko. Hala ere, lana ez du amaitutzat eman, azken argazkia falta delako: «Tabakalera argizatuta erakutsiko duena, trenbideetatik adibidez. Argia bizitzaren sinboloa da, jarduera dagoen seinale», dio.

Arkitektura-argazkilaritzan espezializatua, eskarmentu handia du sektorean donostiarrak. Lehenago, besteak beste, Kursaal jauregiaren prozesua jaso zuen, baita Getariako Balencia-ga museoarena ere. Kasu horien eta Tabakaleraren artean, ordea, badago ezberdintasun bat. Lehenengoetan eraikuntza prozesua zen bitartean, hau da, eraikinek bolumena nola hartzen zuten jasotzea, azken hau zaharberritze bat izan da, egitura zutik egonda, tripetan sartzea hain zuzen.

Eraikinaren tamainagatik, espazio zehatz batzuk hautatu behar izan zituen. Haren simetriak, halere, asko lagundu zion hautaketa egiteko garaian. Patioak, nabeak, atondoa, sarrera eta eskailera nagusia aukeratu zituen. Eta ahalik eta emaitza onenak lortzeko, metodologia zehatz bat ezarri zuen. Hilean behin joan da, eta lan jardunaldi bakoitza ordu berean hasten zuen: goizaldeko 6.30 aldera. «Egun bakarrean egin behar nuen lan guztia, eta mordoa zegoen egiteko, horregatik noiz joan, zein ikuspuntu hartu, zein enkoadraketa egin... hori guztia erabakita nuen eta modu ia mekanikoan egiten nituen. Zortzi orduz jarduten nintzen, argazkiak atera eta atera. Aukerak mila ziren; eta beraz, sinplifikatu

 **JENDARTEA** / Oihane Larretxea de la Granja

Hilean behin eta eguzkia esnatu aurretik, lau urtez joan da Idoia Unzurrunzaga (Donostia, 1968) tabako fabrika zaharrean egiten ari ziren lanak argazki kameraz jasotzera. Lanarekin asko gozatu du, baita eraikin erraldoiaren barruan izan duen bakartasun sentsazioarekin ere, enaren txio eta hegaldiak soilik entzuten zituela. Libre sentitu dela dio.



Idoia Unzurrunzaga, lau urtez erraietatik jarraitu duen Tabakaleran. Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS

egin behar izan nuen», azaldu du.

Erabilitako optika oso angekuzabalei esker, pertsona baten begiek ikus ezin dezaketena jasotzen dute argazkiek: lurra, sabaia eta paretak. «Norbaiti prozesua nola izan den azaldu beharko banio, argazkiek eman beharko lukete erantzuna, hitzik esan gabe. Eta horretarako deskriptiboak izan behar dira, ezin dira detaile txikiak izan, espazioa handia bada, handitasuna erakutsi behar dute, lurretik sabairaino, paretak ahaztu gabe, noski».

ISILTASUNA HANDITASUNEAN

Argia oso elementu garrantzitsua izan da; horregatik joan da beti ordu berean. «Argiak erregularra izan behar du, plano eta espazio berberak eguzkiarekin edo itzalarekin ez baitu zerikuririk, eta, hori errespetatu ezean, beste aldaketa elementu bat eranstea litzateke», uste du. «Eraikina oso handia denez, argazkien emaitza eraginkorragoa izateko, argi kontrastea baxua denean joan behar nuen halabeharrez, kanpokoaren eta barrualdearen arteko ezberdintasuna handiegia delako bestela». Horregatik joaten zen eguzkia esnatzen ari zenean.

Hori azaltzen duen bitartean, Tabakalera ilun eta bakarti bat irudikatzen dugu eta, uste dugunaren kontra, une horietan argitasuna bazegoela dio Unzurrunzagak. «Nahiz eta eguzkia oraindik atera ez, izpiek zuzenean ez eman, argitasuna sumatzen zen. Isiltasuna ere zoragarria zen», gogoratu du.

Barrenean lanean aritu bitartean emozio asko sentitu ditu. Handitasun hartan isiltasuna hausten zuten bakarrak habietan zeuden enarak ziren. «Han bakarrik, txoriek gaua bertan pasatzen zutela pentsatuta... begiak itxita larre batean nengoela zirudien».

«Gozamena izan da. Gauza asko sentitu ditut, oso bereziak. Eta une politak ere ikusi ditut. Adibidez, inor baino lehenago heltzen nintzenez, langileak iristen ikusten nituen. Eta asko



zegokien ordua baino lehenago sartzen ziren; beraz, hor motibazioa bazegoen...», azaldu du. Espazio berberei ateratako argazkiekin egindako segidez gain, beste hamaika irudi atera ditu «tentazio piloa» izan duela bidean. «Detaileak bereziak izan dira. Arkitektoek esaten zidaten zer egin, teknikoki beraintzat oso erabilgarria zelako nire lana –dio–. Hilero 30-35 argazki inguru entregatzen nituen, horietatik batzuk sekuen-

tziak betetzeko. Baina xehetasunak, une politak, asko egon dira, Tabakalerako ordulari mitikoarena, adibidez». Erlojuak ere prozesu propioa izan du lau urtean zehar eta une ezberdinak jaso ditu: aldamioaz inguratuta, oihal batez estalia... Sorpresa azken bisitan izan zuen Unzurrungagak. «Uda ostean izan zen. Erlojura hurbildu eta jarrita zegoen jada, kutxa moduko batekin estalita. Ez nuen argazkia kutxarekin atera nahi eta, oso

Orrialde honetan, jarraipena egin dien guneetako batzuen segidak. Irudiek ederki islatzen dute eraldaketa.

Idoia UNZURRUNZAGA


kuriosoa naizenez –onartu du–, kubo batera igo nintzen kutxa irekitzen saiatzeko, baina ez nintzen iristen...». Hainbat saio egin ondoren, lortu zuen hura ireki eta ordulariari, beste elementurik gabe, klisk egitea. Konpartitzearen garrantzia aipatu du, alegia, berak irudi hori ateratzearen balioa, besteek ere gauza bera ikus dezaten. «Izatez denak gara kuriosoak eta ziur jende askok ere jakin-mina duela ordulariaren inguruan...».

Beste irudi batzuetan langileak islatu nahi izan ditu. Sekuentziak osatzeko irudiak oso orokorrak zirela-eta, beste elementu batzuk bilatu ditu. «Protagonista eraikina zen, baina aldaketak pertsonak egin dituzte. Irudi hauetan, tamalez, norbanakoaren irudi eskubideen kontua dago», esan du.

UNE IHESKORRAK

Saioak hilean behin egiten zituenez, unean unea aprobetxatzea oso garrantzitsua dela dio donostiarrak, ikusten zuen plano bakoitza, xehetasun bakoitza, bueltatuko ez zela bazekielako. Momentuak galkorrak ziren. Eta bazekien. «Detaile arkitektonikoak, gremio batek besteari paretetan utzitako mezu fluoreszenteak, zeinuak ziren, haien jergan erabiltzen diren ikurrak... lana azkar eta modu mekanikoan egin behar nuen, ezin nintzen bidean

gehiagi luzatu, baina momentuak joan egiten dira eta tentazioak asko izan dira. Neure kasa asko atera ditud, momentuaz benetan gozatzen ari nintzelako. Askotan gelditu naiz eraikina barruan behar nuena baino gehiago», kontatu du. Horren harira, oroitu da trenbideetatik gertu Tabakalerara sartzeko ahalbidetu duten sarre berria amaitzen ari zireneko uneaz. «Iristen nintzen bakoitzean sorpresak topatzen ni-





Alboan, gunetako batek jasan duen eraldaketa. Berritze lanek lauzpabost urte iraun dute, bere lanak bezainbeste.
Idoia UNZURRUNZAGA

tuen, zehatz ez nekien zer espero eta egun hartan sarreraren lurra izango zen porlana prestatzen ari ziren, botatzeko. Ba, une hori, hilean behin joanda, edo orduan hartzen da edo galdu duzu. Eta bat-batean une horrek garrantzia hartzen du».

HIRIAREN ERALDAKETAK

Argazkilaritza ikasketak Bartzelonan egin ondoren, eta Arte Ederren ikasketak amaituta, bere ibilbidea definitu zuen. Arki-

Lerro hauen azpian, langileak jardunean ziren bitartean, argazkilarik donostiarrak eraikin barruan ateratako xehetasun batzuk. Tartean, ordulari ezaguna atzeko aldetik.
Idoia UNZURRUNZAGA

tektura argazkilaritza hautatu zuen erreportariaren kuota beteta zegoela uste zuelako eta estudio bat edukitzeko adina bitarteko ez zuelako. «Nire familian hainbat arkitekto daude, baita nire senarra ere. Esparru hori lantzen zuen argazkilaririk ez zegoen orduan eta horri ekin nion, lekua egitea errazagoa izango zelakotan», gogoratu du.

Ogibidearen edo espezializazioaren denborek gainera, bere nortasunarekin bat egiten dutela

dio. «Ni lasaia naiz, eta erritmoa hemen hala da».

Idoiarekin kalean topo egiten baduzue, ez harritu kamerarekin hiriaren eraldaketak harrapatzen ikusiz gero; hiria, eta bere auzoa, gertutik jarraitzea gustatzen zaio jazotzen diren aldaketak harra-patzeko. «Sekuentziak egiten ditut Donostian. Orain, gainera, aldaketa asko dago. San Bartolome, adibidez. Dena aldatzen ari da etengabe, baina aldaketa konstantea denez, bere horretan

mantentzen dela dirudi. Agian kale estu batek ez du garrantzi-rik, bigarren mailakoa da hiri batean... baina nork daki etorkizunean zein ondorio izan ditzaketen esku hartze horiek? Niri behintzat interesatzen zait iraganean gauzak nola ziren jakitea eta jasotzea. Eta, argazkiei esker, testigantza horiek betiko geldituko dira. Tabakalerarekin horixe gertatu da. Sekuentziei esker memorian gordeta geldituko da fabrikaren eraldaketa».





Gorka Zozaia- @Zotz_
Kimikaria

Non dago mundu guztia? I: Gu, hondartzan

arkitektura / zientzia / teknologia

3 BEGIRADA:

Ni neu, egunotan, literalki. Hondar artean, eguzkipean; egonean. Melanina kafeinagatik aldaturata. Horrela soilik hel nintekeen zutabe honetara estralurtarren gaia ekartzera. Beti pentsatu izan dut nahikoa lan badela hemen bizitza adimentsua bilatzen, kanpora begira jarri gabe, eta zer esan, «V» ko arratoiek eta «X espediente»-en doinu psikodelikoek ez diote batere lagundu nire estralurtarrekiko interesari. Ez, «E.T.»-k ere ez! Baina, esan bezala, egonak, eguzkiak eta, batez ere, Mulderren “The truth is out there” hark bultzatuta, gaiari atalka ekitera nator.

Atalka, eskala unibertsalaz ari garelako, alegia, adjektiboek eta zenbakiek ezer deskribatzeari ihes egiten dioten eskala neurgaitz/ulergaitz horretaz. Fenomeno estralurtarrez aritzeko, eskala horren tamainari erreparatzen saiatzea derrigorrezkoa da. Zeru izartsuetan gora begira aho bete hortz gelditzen garenean, gure galaxiako auzo txiki bat besterik ez dugu ikusten, mila argi-urteko erradioko esferatxo bat, Esne Bidearen diametroaren %1 soilik. Bitartean, unibertso behagarrian 100.000-400.000 milioi galaxia ei daude, gure galaxian dauden izar guztiak beste. Horrek unibertsoko izar guztien kopurua 22-24 zero dituen zenbaki batean jartzen du, esangura zailko zenbakitzarra.

Idea argiago bat egitearren, hondartzara joan gaitezke. Lurreko hondartza guztietako hondar ale bakoitzeko 10.000 izar leudeke hor kanpoan. Horietatik guztietatik, Eguzkiaren antzekoak %5 direla jota (%20 ere izan litezkeela estimatzen da) eta horietatik Lurraren antzeko planetaren bat orbitan izan dezaketenak %22 direla jota (%50 ere izan omen litezke), unibertsoko izar guztien %1ek izan lezake gure planetaren antzeko bat orbitan, gutxienez. Hau da, Lurreko hondar ale bakoitzeko 100 “Lur” leudeke unibertsoan barreiatuta!

Horietatik guztietatik bizi adimentsua zenbatetan egon daitekeen ebazteko, espekulazioaren eremuan sartzen gara guztiz. “Lur bereziaren” hipotesiak gure planetan bizi agertzeko izan diren baldintzak guztiz bereziak izan direla sostengatzen duen arren, bizitzaren fenomeno arruntagoa den sinesmena –bai, finean fede kontua da– zabalagoa da. Adibidez, Frank Drakek proposaturiko ekuazioak Lurraren antzeko planeten %1ean bizi sortu dela aditzera ematen du –hondar ale bakoitzeko bizitzadun planeta bat– eta bizitza adimentsua horietatik %1ek soilik garatzen dute-

la suposatuz, 10.000 bilioi zibilizazio adimentsuz ari garela ondorioztatzen da, 100.000 Esne Bidean soilik! XX. mende erdian, zenbaki horien berri izanik eta, era berean, zibilizazio horien inongo arrastorik gabe, «non dago mundu guztia?» galdera jarri zuen mahai gainean Enrico Fermi fisikariak, “Fermiren paradoxa” deritzona formulatuz.

Zenbaki horiei, gainera, denboraren faktorea gehitzen badiegu, are paradoxikoagoa da egoera. Eguzkia nahiko gaztea da eta Lurrak 4.540 milioi urte ditu. Adibidez 7.540 milioi urteko planeta hipotetiko bat hartuz, bertako zibilizazioak 3.000 milioi urteko abantaila izango luke gurearekiko. Dinosaurioak duela 65 milioi urte desagertu zirela kontuan hartuz, egin kontu zelako abantailaz hitz egiten ari garen. Zibilizazioen garapen maila horiei tamaina hartzearen, Kardashov eskala erabiltzen da, hiru motako zibilizazioak bereiziz: I motakoak beren planetako baliabide energetiko guztiak erabiltzeko gai lirateke. II motakoek beren izar anfitrioia-
ren energia guztia balia lezake, eta III motakoek, beren galaxia osoarena. Carl Saganek egindako estimazioaren arabera, gurea 0,7 motako zibilizazioa litzateke.

Esne Bideko 100.000 zibilizazio horietatik III motakoak zenbat izan daitezkeen espekulatzera sartu gabe ere, zibilizazio askoz xumeago batek berehala kolonizatuko luke gure galaxia osoa. Adibidez, planeten artean bidaiatzeko gaitasuna izanik, abiadura txikian izanda ere, eta planeta bakoitzean 500 bat urte emanaz bertako baliabideak xahutzen, Esne Bide osoa 3,75 milioi urte eskasean kolonizatuko litzateke. Bada, non dago mundu hori guztia? Gu, antza, hondartzan; haurrek olatuekin nola, gu Fermiren paradoxarekin jolasean. •



Unibertsoa hondartza bat da. GAUR8

{ koaderno } **Garazi Goia**

Il Vittoriale

Gabriele D'Annunzio italiar poeta, politikoa eta pertsonaia xeblearen etxe aurrean deserosotasun ezohiko batekin hasi nuen duela egun batzuk bisita hura; etxea eta lorategiak inguratzen zituen hormaren kanpoan zegoen saltzaile ibiltariaren mahai gainean Mussoliniren argazkidun hainbat objektu eta svastika zintzilikarioak ikusi berri nituen. Sinesgogortasun sentsazio hura argazki batean jasotzeko akaso, edo ez dakit ziur zergatik, baina telefonoa poltsatik atera nuenean, nire ustez disimuluz, emakume hura azkar gerturatu zitzaidan debekatuta zegoela bere gauzei argazkiak ateratzea esanez. Ironikoa debekuari buruzko lezioak ematen nor ari zitzaidan.

Anfiteatro ikusgarri bat sarreran duela, altzifrez inguratutako lorategi bikainen erdian, Garda lakuaren edertasun, handitasun eta lasaitasuna presentziatuz, muino baten gainean dago etxea. Inoiz aspertuko ez luketen paisaia horietako baten erdian. Gardone Rivieran, lakuaren mendebaldean. Hantxe erai-ki zuen D'Annunziok bere fantasia, Mussolinik finantzatuta, Il Vittoriale izeneko, italiar garaipenen tenplu baten metafora.

Luxuaren maitale, nartzizista, nabarmenkeria atsegin zuena eta seduzitzailea, L'Immaginifico izena jarri zion bere buruari. Ametsek eta desirak bultzatuta idatzi zituen bere lan hoberenak eta Italiako dekadentziaren pertsonifikazio bihurtu zen. Literaturak, batez ere bere poesiek, egin zuten eza-guna hasieran batean, baina bere bizitzaren amaierarako politikan ere urte asko eman zituen; hain zuzen ere, ideal faxisten aitzindaria izan zen. 1897. urtean parlamenturako aurkeztu zen independente bezala, Nietzscheren filosofia egiteko goiburu batekin, «ni eskuina eta ezkerra baino harago nago, baita ongia eta gaizkia baino harago ere». Handik urte batzuetara, Mussoliniren diskurtso politikoak idazten amaitu zuen, propaganda promozionatuz eta hainbat gudutako liderra izan zen. Hala ere, *Il Duce*-ren erregimena izan zen Garda lakuaren albora baztertu zuena, gauza guztietan ez zetozelako bat, Mussoliniri protagonismoa kenduko zion mehatxutik babesteko eta gainera, Erromatik urrun mantentzea lortu zuten horrela.

Atentzioa eman zidaten gauza asko zeuden etxe barruan, hogeita hamar mila liburu eta hamar mila objektu artean ez dela harritzekoa pentsatuko luke, noski, edonork; guztiak, etxean zehar gailentzen zen iluntasun deseroso hartan, gerran galdu zuen begiaren ondoren garatutako fotofobiatik babesteko.

Etxean sartu eta korridore motz baten bi aldeetan bi ate zeuden: ezkerreko atea ongi etorriak diren bisitentzat; eskuinekoa gainerako guztientzat. Hasieratik gauzak garbi uzten zituen idazleak.

Inskripzio bat zegoen gela bateko ate gainean, «eskuak bost behatz dituen bezala, heriotza eragiten duten bost bekatu daude». Hain zuzen ere, bekatu kapitalez ari zen, eta zazpi artean bi falta ziren: lizunkeria eta gutizia. D'Annunzioren aburuz, horiek biak dohainak ziren eta ez bekatzekoak.

Haren estudioetako batean, etxearen goiko pisuan, sabaia erdaraz idatzitako mezuz beteta zegoen: «*todo*

«Eskuak bost behatz dituen bezala, heriotza eragiten duten bost bekatu daude». Bekatu kapitalez ari zen eta bi falta ziren: lizunkeria eta gutizia. D'Annunzioren ustez, horiek biak dohainak ziren

es nada» irakur zitekeen. Oraindik gehiago nahi zuen, beti gehiago. Alboko estudioan, handiena eta argitasun gehiena zuenean, garai hartako Eleanora Duse aktore ezagunaren busto bat zegoen, zapi batekin erdi estalita; idatzi ahal izateko Duseren distrakziorik ezin zuen-eta eduki. D'Annunziok Duserekin izan zuen harremana aski ezaguna zen, «Il fuoco» nobelan kontatu zuen dena; emaztearen arrastorik apenas zegoen etxean, Duseren presentzia, aldiz, oraindik ere nabarmena zen.

Duse ez zen izan, ordea, bere maitale bakarra; emaztea etxean zegoen bitartean hartzen omen zituen maitaleak eta bertan izan zituen hamaika afera, gehienak idazlearen intentsitate androgino hark liluratuta gerturatzen zitzaizkiola. Zalantzarik gabe aparteko limurtzailea izan zen. •

«Ikus-entzunezkoen sektorean lana gero eta hobeto egiten da, baina baliabide gero eta eskasagoekin»

Zinemaldiko alfonbra gorria luze-zabal jarrita dagoen honetan, euskal zinemagintzaz dezentente hitz egingo den honetan, Ikus-Entzunezkoen Euskal Ekoizle Burujabeen Elkarteko (Ibaia Elkarteko) lehen-dakariak sektorearen egoeraz argi hitz egin du. Sortzaileak badaude, sortzaile onak eta lan egiteko gogo eta gaitasun handiarekin; teknologia ere alde dauka sektoreak, baina baliabide gero eta gutxiagorekin ari da lanean. Diru iturriak nabarmen mozten ari dira. Eta panorama horren erdian Zinemaldiko alfonbra gorritik hainbeste euskal sortzaile beren lanak besapean hartuta pasatuko badira, meritua ez da inongo erakunde edo politikarirena, meritua profesionalena da, «baliabide gero eta gutxiagorekin lan gero eta hobeak egiten ari direlako». Eta nola egiten da hori? Ba ahalegin handia eginez.

Nolakoak dira zuentzat Donostiako Zinemaldiaren bueltako egun hauek?

Egun pozgarriak dira, nahiz eta lanpetuago egon. Baina zinemaldi bat beti da gauza pozgarria mundu honetan gabiltzanontzat. Ibaia Elkartek baditu bere hitzorduak, eta gero, ekoizle bakoitzak bereak izaten ditu. Ni, esaterako, aurten lasaiago ibiliko naiz, ez dudalako filmik Zinemaldian. Iaz bi izan nituen, “Lasa eta Zabala” eta “Dixie eta Matxinada Zombia” eta lanpetuago egon nintzen. Aurten Zinemaldian ez daukagu filmik, baina Abra Produksioak enpresan juxtu hastera goaz gure hurrengo lanarekin.

Zeozar aurreratzerik bai?

“Igelak” izena du filmak, protagonista nagusia Gorka Otxoa aktorea izango da, euskaraz izango da eta azaroaren 2an hasiko gara filmazioarekin. Une

honetan prestaketa lanetan ari gara buru-belarri. Komedia bat da, baina kutsu sozial nabaria izango duena eta musikak presentzia handia izango du proiektu honetan.

Ikus-entzunezko lan baten prozesuan zein da faserik atseginena eta zein gogorrena?

Niretzat parterik ederrena sormenari dagokiona da. Proiektua sortzen denean gidoiarekin lan egitea, castingak egitea, aktoreekin aurretik lan egitea... segur aski jendeak uste du parterik politena filmazioarena izango dela. Baina, tira, aurreko lan guztia ez badago ondo egina, sormen lana ez badago ondo jotsia, filmazioan ezin da ezer konpondu. Filmatzen hasterako etxeko lanak ondo eginak egon behar dira.

Parterik itsusiena? Finantzia-zioa lortzeko egin beharreko borroka guztiak eta jo beharreko ate guztiak. Horrek sortzen du buruko min gehien.

Gatozen berriz Zinemaldira. Bada euskal zinemaren loral-di bat gertatzen ari den sentipena. Hala dela esateko moduan al dago sektorea?

Botila erdi beteta edo erdi hutsa ikus daiteke, begiratzen duenaren arabera. Alor guztietan gertatzen dena da –bai gurean eta bai besteetan– prentsaurreko ofizialeetan normalean erakundeetako kideak egoten direla eta haiek beti saltzen dutela botila erdi beteta dagoen irudia. Horien arabera, dena primeran doa eta gizartean ez dago inolako arazorik. Nire ustez, ez da ez bata ez bestea. Iazko Zinemaldian bi euskal ekoizpen izan ziren Sail Ofizialean (“Loreak” eta “Lasa eta Zabala”) eta aurten “Ama-ma” daukagu eta horiek oso albiste onak dira. Alderdi horretatik osasuntsu gaudela esateko moduan gaude, baina Zinemalditik atera eta sektorea nola dagoen begiratzen badugu, panorama oso bestelakoa da. Finantzaketa lortzeko dauzkagun diru iturriak asko jaitsi dira, bai Estatu mailan eta bai hemen. Murritzeta izugarriak izan dira, eta murritzeta horiek denek

JOXE PORTELA

IBAIA ELKARTEKO LEHENDAKARIA

Ikus-Entzunezkoen Euskal Ekoizle Burujabeen Elkarteko lehendakaria da. Donostiako Zinemaldi betean, sorkuntzan oparo eta baliabideetan eskas dagoen sektoreaz jardun du Portelak.

amagoia.mujika@gaur8.info

eragiten digute, gure diru iturri batzuk Estatutik datozelako.

Hemen ere egoera ez da samurra. Sektorearen diru iturri nagusiak Eusko Jaurlaritza eta EITB dira. Eusko Jaurlaritzatik asko jaitsi da finantzaketa eta EITBren egoera ez da batere ona. EITBren aurrekontua jais-ten bada, EITBk zinemagintzari bideratzen dion partea ere jai- tsi egiten da.


Eta ETBren aurrekontua de- zente jaitsi da.

2004-2014 urte tartean ETBren aurrekontu orokorra %30 jaitsi da, eta zinemagintzari bidera- tzen dion diru partida are gehiago, %34-37 bitartean. Tele- bista ikusi besterik ez dago fik- zioa desagertzen ari dela kon- turatzeko. Aurretik beti egon dira telesail pare bat, bai euska- raz eta bai gaztelaniaz. Eta tele- sailak desagertzen ari dira ETB- tik. Eta ez da erraza audientzia datu onak lortzea daukan pro- gramazioarekin.

Zer-nolako akordioa dauka- zue ETBrekin?

Daukagun akordioaren arabera, ETBk bere aurrekontuaren zati bat zinemagintzari bideratu be- har dio; legearen arabera, au- rrekontuaren %4. Eta horren baitan beste akordio bat dauka- gu diru hori nola gastatu zehaz- teko. Hartara, hitzartu genuen diru horren zati bat urtero-ur- tero euskarazko bi ekoizpen egitera bideratuko zela, eta ho- rrek emaitzak eman ditu eta kalitatean igarri da. Duela ha- mar urte hasi zen akordio hori “Aupa Etxebeste” filmarekin. Gerora, 2008. urtean, zehaztu zen urtero bi proiektu izango zirela eta akordio horrek hama- bost pelikula eman ditu. Ho- rren ondorio dira, esaterako, “Lasa eta Zabala”, “Loreak”, “Amama”... eta martxan dauden beste zenbait proiektu interes- garri ere bai. Badaude, beraz, nahiko ondo funtzionatzen du- ten gauzak.

Egia da, hala ere, proiektu ho- riek bidea egin behar dutela Zi- nemalditik kanpo eta publikoa behar dutela hortik kanpo. Eta batzuetan ez da hala gertatzen.



Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS

Iazko urtea nahiko ona izan zen, ezta?

Egia esan, bai. “Lasa eta Zabala” eta “Loreak” filmak ikustera jen- de asko joan zen eta hori man- tendu egin behar dugu. Oso ga- rrantzitsua da euskal ekoizpenek publikoa izatea.

Estatu mailan zer-nolako ha- rrera izan zuten?

Eskasa, pentsatzen genuen beza- la. %85 inguru Euskal Herrian ikusi da. Baina normalean asko kostatzen zaigu gure ekoizpe- nak estatuan zabaltzea, eta ara- zoa ez da filmek lantzen dituz- ten gaiena. Ez badaukazu atzetik telebista handi bat zure lanak babesten eta iragartzen, ez da batere erraza merkatu horretan sartzea. Aurreko postuetan beti daude telebista handiek babes- tutako ekoizpenak.

Telebistak aipatu dituzunez, ikus-entzunezkoen alorra- rentzat garrantzitsua da ber- tako telebista indartsu ego- tea, ezta?

Zalantzarik gabe. Bertako tele- bista sendoa izatea ona da de- nontzat, baita ikus-entzunezko- entzat ere, gure lanaren erakusleho aparta delako tele- bista. Eta alderdi politikoek akordio bat lortu beharko lukete telebistari dagokionez. ETBren helburuak eta erronkak zein- tzuk izan behar diren zehaztu beharko lukete eta horren ara- berako baliabideak jarri helburu horiek bete daitezen, eta ondo bete daitezen, gainera. Iruditzen zait inoiz ez dutela serio hartzen bertako telebista publikoaren inguruko eztabaida. Hau eta bestea esaten dute, kritikak egi- ten dizkiote, baina ez dituzte ez- tabaida serioa eta irtenbide ego- kiak proposatzen. Alderdi politikoek serio hartu behar du- te gure telebista publikoaren in- guruko eztabaida.

Eztabaida serioa falta dela dio- zu. Arazoa ikus-entzunezko alorrarena edo orokorrean kultura alorrarena da?

Arazoa orokorra da, kultura da serio hartzen ez dutena. EAEko aurrekontuak ikusi besterik ez dago horrekin konturatzeko.



«Bertako telebista sendoa izatea ona da denontzat, baita gure sektorearentzat ere, gure lanaren erakusleiho aparta delako telebista. Eta alderdi politikoeak akordio serio bat lortu beharko lukete telebistari dagokionez»

«Amenabarrek Zinemaldian aurkeztuko duen 'Regresion' filmaren aurrekontua Zinemaldian bertan izango diren euskal ekoizpen guztiek batera duten aurrekontuaren bikoitza da. Hortik atera kontuak»

Kulturak oso pisu txikia dauka aurrekontuetan eta, gainera, krisiak eta murrizketak iristen direnean beti kulturaren sartzaren diru artaziak. Datuak hor daude. 2005-2015 urte bitartean Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu orokorra %49 igo da. Eta urte tarte berean kulturari bideratutako aurrekontua %4,79 igo da. Bistan da kulturak aurrekontu orokorrean duen pisua gero eta txikiagoa dela. Datuekin jarraituz, 2005. urtean aurrekontu orokorraren %2,42 bideratzen zen kulturara. 2015ean, berriz, %1,69ra jaitsi da portzentaje hori.

Herri batentzat kultura benetan garrantzitsua baldin bada – eta guk garbi daukagu oso garrantzitsua dela –, finkatu beharko da aurrekontu orokorretan zer-nolako pisua izan behar duen eta hori mantendu egin beharko da urteetan zehar. Bestela, krisia etorri orduko kulturari kentzen zaio, eta gure us-tez garrantzitsua da hori ez gertatzea. Proposatzen duguna da aurrekontu orokorretan kulturari bideratu beharreko gutxi-neko bat markatzea eta marra gorri horretatik ez jaistea.

Beraz, azken urteetan sektoreak diru gutxiagorekin lan egin du, baina emaitza onekin, ezta?

Bai, eta horregatik botila erdi beteta ikus daiteke, baina ez administrazioak ahalegina egin duelako, ahalegina sektoreak egin du, eta handia gainera. Ekoizle batzuek –gero eta gutxiago gara– segitzen dugu lanean gero eta baliabide gutxiagorekin; aktoreek gero eta gutxiago kobratzen dute; berdin sektoreko beste langileak; aurrekontu eskasekin... lana gero eta hobeto egiten da, baina baliabideak gero eta eskasagoak dira. Sortzaileak badaude, sortzaile onak eta lan egiteko gogo eta gaitasun handiarekin; teknologiarik eskertzen lana errazago egiten da; baina industriaren egoera aztertzerantz sartzen bagara, baliabideak eta lan baldintzak aztertuz gero, panorama txarra da. Gero eta gidoilari gutxiago, gero eta aktore gutxiago, Euskal Herri-kanpora lanera joan behar

dutenak gero eta gehiago... 2008tik hona Euskal Herrian lan egiten duten aktoreen fakturazioa erdira jaitsi da.

Datu esanguratsu bat emango dut; Amenabarrek Zinemaldian aurkeztuko duen "Regresion" filmaren aurrekontua Zinemaldian bertan izango diren euskal ekoizpen guztiek batera duten aurrekontuaren bikoitza da. Hortik atera kontuak. Hamasei euskal ekoizpen daudela Zinemaldian? Horrela, aurrekontu horiekin, ehun ere izan daitezke! Hori ere aztertu behar da.

Hala ere, presentzia izatea ona da, ezta?

Zalantzarik gabe. Eta Zinemaldiarekin harremana ona da. Haiek ondo egiten dute beren lana, eskuak zabalik hartzen dituzte euskal ekoizpenak eta erakusleiho aparta da guretzat. Arazoa da gure lana aurrera ateratzeko Zinemaldia baino zerbait gehiago behar dugula, urte osoan behar dugula bultzada.

Zinemaldiaren baitan badu-

zue beste hitzordu bat, XI. Lau Haizetara dokumentalen ko-produkzio foroa izango da irailaren 22an, 23an eta 24an.

Bai, eta hitzordu polita da guretzat. Foro horren helburu nagusia ikus-entzunezko sektoreko profesionalei topagune bat eskaintzea da, dokumentalen generoari lotuta dauden produktore europarrak elkartu eta beren proiektuak aurkezten dituzte. Eta produktu horiek erostera telebistako ordezkariak ere gerturatzen dira. Foro oso interesgarria da, gero eta jende gehiago biltzen gara eta aurkezten diren proiektuak gero eta hobeak dira.

Egia da dokumentalek aurrekontu txikiagoak dituztela eta murrizketek ez dietela hainbeste eragin horregatik. Alorra osasuntsu dago, gero eta lan hobeak egiten direlako, baina egia da askotan lan horiek arazoak dituztela erakusleihoak lortzeko. Telebista pribatuetan gero eta dokumental gutxiago ikusten da. Dokumentalek leku gutxi daukate orokorrean, espezializa-

tutako zinema aretoak beharko genituzke.

Herritarrek zein ardura daukate kultura propio indartsu bat eraikitzeko orduan?

Gustatuko litzaidake herritarrek kulturari balioa ematea, garrantzia duela eta herri batentzat beharrezkoa dela buruan izatea. Estatutik frantsesean, esaterako, herritarrak oso harro daude han egiten den kulturarekin. Estatu espainolean, jarrera bestelakoa da, kulturari bideratutako diru laguntzak kritikatzeko dira, diru hori beste alor batzuetan inbertitu behar dela esaten da... ez zaio kulturari baliorik ematen. Euskal Herrian tarteko jarrera dugula iruditzen zait; ez dugu frantsesek adina baloratzen, ezta espainolek adina kritikatzeko ere. Baina iruditzen zait herri bezala erabaki egin beharko dugula kultura guretzat garrantzitsua den edo ez, eta horren arabera bidea markatu.

Zer da garrantzitsua gure herriarentzat? Kulturak zer-nolako pisua eduki behar du?





Jon URBE | ARGAZKI PRESS



IKUSMIRA

ZENBAT IKASI DUGUN HAMAR MINUTU HAUETAN!

Etxeko sofatik eta pijametan ikusi zaituztegu, inpartzialak izan nahian. Ikusi dugu nolako ahalegina egin duzuen, hortzak estutuz, hesteak bota beharrean, elkarri indarra emanez ja indarririk geratzen ez zela zirudienean. Ez dugu ikusi nola entrenatu duzuen egunero, negu zein uda, bero zein hotz, laneko edota eskolako nekeen pisa itsasora botata. Hori guztia ez dugu ikusi, imajinatu egin dugu. Kirolari profesionalak ikusi ditugu, lehiakorrak, irabaztean eztanda egiten dutenak eta galtzean amorratu egiten direnak. Kirolari profesionalak ikusi ditu, ahaleginaren neketik ahalegin handiagoa egiten dakitenak, errenditzen ez direnak. Bukatu da lehia ikusgarria eta arraunaz ezer gutxi jakiten segitzen dugu. Baina zenbat ikasi dugun hamar minutu hauetan, zenbat. «Ama, handia naizenean arraunlaria izan nahi dut».

amagoia.mujika@gaur8.info



Argazkiak: ARMENTIA IKASTOLA

Gasteizko Armentia Ikastola bertoko elikagai ekologikoen alde

Armentia Ikastolak gurasoek, ikastolak eta nekazari ekologikoei osatutako lantaldea jarri zuen martxan 2012/2013 ikasturtean. Esan beharra dago ikastetxe hau sare publikotik kanpo dagoela eta, hortaz, baduela nolabaiteko autonomia bere sukaldearen kudeaketarako. Horiek horrela, egun sukaldeaz arduratzen den enpresarekin hitzartutako akordioan lehengaien jatorria erabakitzeak aukera dute. Beraien helburua da gutxika menuetan

elikagai ekologikoak, ahalik eta gertukoenak, sartzea.

BERME OSOKO ELIKAGAIAK

Ikastola osatzen dutenen arteko ekimena da hau, gurasoek, sukaldariak eta ikastolako langileek bultzatua. Ibaik, Armentia-ko zerbitzuen arduradunak, jendartearen gertatzen ari den aldaketaren ondoriozuzentzat jotzen du. 2013/2014 ikasturtean produktu ekologikoak erosteari ekin zioten, inguruko bi baserriar ekologikori (Bolibarreko Oskar Lopez de Lacalle eta

Monasteriogureneko Mikel Diez) barazkiak eta lekariak hartuz. Baina jantoki publiko baten horniketarako eskatzen diren baldintzak bete ahal izateko, arazo burokratiko asko topatu zituzten.

Izan ere, Europar Batasuneko osasun-erregistroa eskatzen zaie mota honetako hornitzaileei, eta horrek suposatzen du, besteak beste, baserritarrak behartuta daudela lokal egokitu bat izatera produktuen kudeaketarako, kamera, komun eta bestelako baliabideekin hornituta. Ziurtagiri ekologikoa duen Urbide Otarrak

enpresari esker, inbertsio horiek egiteko beharrik ez dute izan ekoizleek, enpresaren bitartez arauzko osasun-bermea lortzen baitute beraien ekoizpenarentzat.

Josu eta Ana bazkideek 2014an osatu zuten Urbide Otarrak. Partikularrei saskiak eskaintzeaz gain, Goizalde Nagusien Egoitza ere hornitzen du. Hain zuzen ere, egoitza honekin lan egin ahal izateko lortu behar izan zuten Europar Batasuneko osasun erregistroa. Horren jakitun, baserritarrek eskatu zieten beraien eta ikastolaren artean zubi-lana egitea. Eta horrela lortu dute aurten ikastola Arabako barazki eta lekari ekologikoz hornitzea, lege sanitarioek eskatzen duten gutzia betetz.

Ibairen hitzetan, elikagai ekologikoak eskaintzea pauso handia izan da. «Eskala txiki batean ari gara. Ez da erraza elikagai ekologikoen aldeko apustua egitea. Hasteko, guri behintzat kostu handiagoa suposatzen digu, eta hori gai garrantzitsua

NEKAZARITZA ETA ELIKADURA EKOLOGIKOA



da kontuan izanda gurasoek ordaintzen dituzten kuotak ezin direla ukitu, nahiz eta zerbitzuaren kostuak garestitu. Enpresaren eta Ikastolaren artean adostu genuen bertoko lehengai ekologikoekin lan egitearen ondorioz gainkosturik sortzen bazen Ikastolak hartuko lukeela horren ardura. Kalkuluak eginak dauzkagu, eta gastu horiek jasateko moduan gaude, baina muga bat da», agertu du.

Hala ere, arduradunak galdera bat egingen du prezioaren gorabeheran: «Elikagai ekologikoak garestiak dira, edo konbentzionalak dira merkeegiak? Arazoak arazo, gure helburua da Armentiak burujabetasuna izatea menuen eskaintzan, horretan gabiltza».

Proiektuaren bideragarritasuna eta jarraipena lortzeko zer beharko litzatekeen galdetuta, beste atal batzuk ikastolaren menpe egotea ezinbestekoa dela baieztatzen du Ibaik. «Adibidez, gure hurrengo aurrerapausoa menuak erabakitzea izan beharko litzateke; honek suposatuko luke horien kostua, produktuak eta sasoitasuna kudeatu ahal izatea. Ematen diren aurrerapauso guztiek oso zehatzak eta neurtuak izan behar dute, gurasoen kuotak ez igotzeko. Ez dugu nahi inolako aldakatarik zerbitzu elitista bat eskaintze-

ko, uste baitugu zerbitzu duin, euskaldun, jasangarri eta iraunkorra eskaini ahal dela, kuotak igo gabe».

JANTOKIA HEZKUNTZA-PROIEKTUAN

Ikastolaren hezkuntza-proiektuan ingurumenaren zaintza ikuspegi ezberdinetatik lantzen da, baina elikagai ekologikoek badute garrantzi berezi bat, jantokiaz gain Baratzak proiektua ere martxan duelako ikastolak. Ortuaren ongarri gisa, jantokiko soberakinekin egindako konposta erabiltzen dute. Horretarako, ikasleek batzen dituzte bazkarietako soberakinak (eguerdiro lau ikasle txandakatzen dira lan hau egiteko) ikastolako konpostagailura eramateko. Egunero, Ekaia enpresak hondakinak bildu eta Narbaizara eramaten ditu, bere azpiegiturretan konposta egiteko. Ikasturte bukaeran, Ekaiak konposta ikastolari eramaten dio eta ortuan ongarri gisa erabiltzen da. Horrela, Armentia Ikastolakoek azpimarratzen dutenez, ikasleek bertatik bertara ikusten dute jantokiko hondakinez baliatu daitezkeela ongarri gozoa lortzeko.

Antxon Illaro – ENEEK
Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura
Ekologikoaren Kontseilua

«Visca Catalunya!»

A itortzen dut Anari gustuko dudala oso, batez ere begiak itxita entzuteko aukerarik izaten dudanean... Goxoa bezain garrantza den hiru dimentsiotako ahots sarkorraz belarritatzen dizkit besarkatu zein hozkatu ere egin ditzakedan sentipenak. Hitz soilak, hitz biluziak gorputz dira bere zalan-tza eta ziurgabetasunekin. Osoa eta benetakoa.

Ez izatea eroso dirudienean, izatea ausardia izan eta arriskuak hartzea denean amildegiaren ertzetik igarotzeak barruak astintzen dizkizu. Urrats bakoitzean dena dagoenean jokoan, hondora erori ala aitzinera jarraitzea bihotza danbadaka ari

zaizunean beldurraren eta plazeraren arteko dantza zirraragarriak atrapatzen zaitu. Ez eternitatean ez hutsaltasunean, bizi itzazu gogoak, zalantzek, beldurrek, zirrarak, maitasunak eta plazerak larruazal eta barruak astintzen dizkizuten uneak. *Carpe diem!* Gogoa eta ausardia batek, besteok eta denok.

Kataluniarrak ditut gogoan. Zulo beltzera jaustera doazela orro egiten diete nahi dutena izan ez daitezen nahi dutenek. Abiatu dira, ordea, ertz irristakorrean barna, arnasketa bakoitzean pausoa emanaz.

Menpeko ala burujabe, horra hautua, nahi dutena izateko burujabe. Amildegi

ertzean aurrera egin ahala orduan eta ilunpe ilunagoa topatzen dute, aginte espainolisten ekaitz bortitzagoa.

Bada, ordea, memoriarik, eta zer nahi duten ahazteko ez dago arriskurik. Bada askatasun politiko eta sozialerako bidean itsasargiaren argi izpirik zerumugan. Eta zilegiak izanik ere beldurrak eta dardarak, konpromiso irmo eta ausartek emanaraziko dizkiete pauso tinkoak.

Zure askatasuna eta nahia betetzeko bide malkartsu eta korapiloa jositako baino uzten ez dizutenean ez beldurrik izan amildegiari jarraitzen badiozu sentitzen duzunari.

Kutsatuko al gara euskaldunok ere! •

Xabier Mikel
Errekondo



Baliarrainen jaioa, Alegian egiten du lan eta bertan hartu gaitu. Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS

infraganti ENEKO GARMENDIA

Haurrentzat prestatzen diren jokoetan ohikoa da lokotx-biltzea; jolasetik harago, helduentzako txapelketak ere antolatzen dira eta horietan ezagun da jada Eneko Garmendia baliarraindarra. Gipuzkoako Txapelketako txapela zazpigarrenez jantzi zuen iragan astean eta, gaur, Euskal Herrialdeen Arteko Herri Kirol Txapelketan izango da.

Elizondon gaur arratsaldean egingo den Euskal Herrialdeen Arteko Herri Kirol Txapelketan parte hartuko du, joan den astean irabazi zuen Gipuzkoako Lokotx-biltze Txapelketak horretarako pasea eman diolako. Indartsu ikusten du bere burua Eneko Garmendiak, «sasoiko», baina lan honetan ezer ikasi badu, pausoz pauso, lokotxez lokotx, bidea egiteak duen garrantzia da.

Lagun batek botatako hordagoak jarri zuen Baliarraingo gaztea lokotx-biltze lanetan orain ia hamar urte. «Aurretik esana zidan; baina herriko jaiak amaitu eta txukuntze lanetan genbiltzala lokotxak jarri zizkidan eta hala egin nuen lehen proba», gogoratu du Garmendiak. Jaiaren ajeak oraindik ere agerikoak izanagatik, marka ona egin zuela iruditu eta lagunak Gipuzkoako txapelketan parte hartzera animatu zuen.

2006an izan zen hori eta hurrengo urtean Baliarrainek hartu zuen Gipuzkoako Txapelketa. «Herriek eskatzen dute txapelketa bertan egitea eta jaien baitan antolatu zen hura», kontatu du. Lehen parte hartzean txapela jarri zuen baliarraindarrak eta, bidea abiatuta, orduz geroztik beste sei jantzi ditu. Gipuzkoako ondoan jarrita ditu Euskal Herriko txapelketetan eta Euskal Herrialdeen Arteko Herri Kirol Txapelketan lortutakoak.

Haur jolas soila dirudien arren, parean jarritako 50 lokotxak biltzeak abilitate zenbait izatea eskatzen du. Azkartasuna, noski, lehiaren funtsa parean jarritako lokotxak aurkariak baino azkarrago biltzea delako. «Azkar ibili beharra dago, ahalik eta azkarren, baina behin

eta berriz errepikatzen diren erritmo aldaketak eta arnasaketa kontrolpean izanda», zehaztu du.


Joan den larunbatean Donostiako Trinitate plazan egin zen saioan sei minutu eta 30 segundo behar izan zituen lanak amaitzeko, eta denbora tarte horretan etenik gabe egin zuen korrika alde batetik bestera. «Ohitzen joaten zara, jakina, baina entrenamendu espezifikoak egiten ditudanean, oraindik ere saioa amaitzen dudanean, hustuta amaitzen dut erabat eta eztarrian erredura sentitzen jarraitzen dut», aitortu du.

Urtean zehar korrika aritzen da eta txapelketen atariko bi hilabeteetan ekiten dio berriazko entrenamenduak egiteari. Horretarako, frontoian eta lehian jaso behar dituen lokotx guztiak ilaran jarrita aritzen da. «Frontoiaren ate ondoan jartzen dut saskia eta frontisean azken ilara... bertigoia ere ematen du hasi aurretik», kontatu du barrez.

AUSARDIA KONTUA ERE BAI

Itsua-itsuan korrika egitea baino zerbait gehiago da. Entrenamenduetan saskiratze teknika ere lantzen ditu, punteria fintzea ere beharrezkoa delako marka onak egiteko. Lokotxak behar bezala saskiratzeak zenbait segundo irabaztea dakar. «Hartu nahi duzun arriskuaren arabera da; batzuetan komenigarria izaten da ziurtasun handiagoarekin ibiltzea lokotxa kanpora botatzeak denbora asko galtzea suposa dezakeelako; nik normalean hirugarren lerrotik jaurtitzen ditut, baina, diodan bezala, hori aurkariaren arabera ere bada», azaldu du.

Eta hasi nondik? Lehenengotik edo azkenengotik? «Nik



Urte osoan egiten du kirola eta, beraz, txapelketen atarian berariazko entrenamendu batzuk egitearekin nahikoa du.

Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS

oraindik lehen-lehena atzekoa hartzen dut. Hasi nintzenean atzetik aurrera segidan biltzen nituen denak, ilararen ordena jarraituz. Aurrerago konturatu nintzen konbinatzea egokiago zela, modu honetan arnasa kontrolatzeko aukera ematen duelako. Hala, atzetik lehen hogeitaz lehen hogei lerroak jasotzen ditut lehenik; ondoren, aurreko lehen sei ilarak batzen ditut, eta gero berriaz ere indartuta itzultzen naiz urrunen daudenak biltzera», aipatu du. Guztiek ez dute ordena bera baliatzen, bakoitzak bere «teknika» dauka eta horrek aurkariaren martxa jarraitzea zailtzen du. Zorionez, baditu txapelketaz txapelketa laguntzen dioten lagun eta herritarak eta horiek dira aurkariaren martxa edota hutsak jakinarazten dizkietenak. «Nork bere lanean zentratu behar du, baina ezinbestean jarraitu behar duzu aurkariaren lana, zeharka bada ere».

Txapelketetan jende berdintsua ibiltzen da eta, hori dela eta, ez da sorpresarako tarte handirik izaten. Aurkariaren indargune eta ahulguneak ondo ezagutzen dituzte. Gaurkoan, nafarrei begiratuko die zeharka Garmendiak eta haren indarrak neurtuko dituzte, hala berriaz, bertaratzen diren lagunek.

Ez dio bere buruari eperik jarri, gorpuzak uzten dion bitartean jarraituko du lokotx-biltzean lehiatzen, entrenamenduak osatzea eta txapelketetan parte hartzea ez duelako «sakrifizio» gisara bizi.

Testigua hartuko dion jende asko ere ez dago. Ildo horretan,

Elizondok hartuko du gaur arratsaldean Euskal Herrialdeen Arteko Herri Kirol Txapelketa eta bertan lehiatuko da lokotx biltzen baliarraindarra

Itsu-itsuan korrika egitea baino zerbait gehiago da. Entrenamenduetan saskiratzeko teknikak ere landu behar izaten dira, punteria fintzea ere beharrezkoa delako marka onak egiteko

ezjakintasuna da, Garmendia-
ren esanetan, lokotx-biltzearen arerio nagusia. «Jendeak ez daki txapelketak egiten direnik ere; haurrei entretentzeko jartzen zaien jokoa den ustea dago eta herri kirolen baitan ere ez

dago oso aurrean kokatuta».

Erakustaldietan ere gehienetan ez zaio lokotx-biltzeari tarterik egiten; egin izan dituzte, baina ez da ohikoa. Gaztetxorik apenas entrenatzen dela aipatu

du, nahiz eta gaztetxoak izan, joko moduan behintzat, lokotx-biltzean gehien aritzen direnak. «Nik herrian gaztetxoak izaten ditut alboan; nire entrenamen-

duak ikustera etortzen dira eta amaitutakoan lokotx batzuk jarri izan dizkiet proba egin dezaten; asko gustatzen zaie, baina entrenatzen eta txapelketan hastea desberdina izaten da». Gainera, bere esanetan, jende gehienak ez daki lehiatzeko Herri Kirol Federazioan izena ematea nahikoa dela, baina hori egitea ezinbestekoa da.

Garmendiak beste modalitate batzuk ere probatu ditu, herriko jaien aitzakian trontzan ere aritua baita, baina egun lokotx-biltze saioak aurretik ere pasio zuen futbolarekin partekatzen ditu. Gustura aritzen da bakarka entrenatzen, baina taldean kirol egitearen abantailak handiak direla dio. «Askotzen zaitu taldean aritzeak, baina hori txarra bezain ona da», aitortu du, bakarka edota taldean, «gustura» aritzearen garrantzia nabarmenduta. •

Maidar Eizmendi



Iratxe Esnaola - @puntu
Informatika ingeniaria

Adi! Droneak!

GARAK erreportaje bat argitaratu zuen irailaren 7an, Iker Bizkarguenagak idatzia. Drone armatuen gainean mintzo zen, albiste baitzen, aste hartan, lan polizialetarako erabili ahalko direna. Ipar Dakotatik etorri zen albiste. Urtarriletik eztabaidan ibili ondoren, lehenak izan dira drone armatuak arautzen, betiere arma hilgarriak gabe: gas negar-eragilea, gomazko balak, deskarga elektrikoak, eta abar. Baina arma hilgarritzat hartzen ez badituzte ere, drone armatuak dira eta hau hasiera bat besterik ez da.

Droneak pilotu gabeko hegazkinak dira. XX. mendearen erdialdetik euren garapenak interes handia piztu du. Azken urteotan, entretenimendura bideratu izan dira, eta Amazon-ek bere paketeak etxeetara bideratzeko erabiliko zituela kontatu ziguten "Gaur egun" eta "Teleberri"-n. Albiste on gisa plazaratu zuten, aurrerapen gisa. Baina droneak ez dituzte liburuak eta bestelakoak banatzeko garatu nahi izan. Teknologia honen helburua beste bat izan da beti.

Drone bat ekoiztea, caza edo gerrako ohiko hegazkin bat ekoiztea baino merkeagoa da. Ez du piloturik behar; beraz, ez da piloturik formatu behar. Eta gertakariak nahi bezala ateratzen ez badira, edozein kasutan, ez da galera humanorik gertatzen, kontrola urrunekoa delako. Egia da droneen zenbait ezaugarri asko hobetu daitezkeela oraindik ere (autonomia, bolumena eta zehaztasun maila), baina errealitate bat dira eta gero eta gehiago erabiliko dira. Antza, Ameriketako Estatu Batuek eta Israelek jada erabiltzen dituzte. Turkiak, Txinak, Erresuma Batuak eta Indiak ere euren interesa agertu dute. Europar Batasuna eta NATO ere droneei begira daude. Denak.

Bizkarguenagaren erreportajea, drone armatuen kontuarekin, beste giza-eskubide batzuen urraketa ere aipatzen zen: pribatutasunarena, kasu. Droneak, arma ez hilgarriekin doazenean ere, zaintzan ibiliko

direlako. Begira. Horrekin batera, bada niri barrua mugitzen didan beste eremu bat: gerra bideo joko bilakatzearena, biktimak errealak badira ere. Alegia, droneak ez du piloturik behar, eta hortaz, ez dira hegazkineko pilotuak behar. Baina behar dira urruneko kontrola eramango duten pertsonak.

Eztabaida ertz askotatik landu da eremu honetan. Bate-tik, alde moraletik. Urruneko kontrolarekin, erailketak urrutitik egiten dira. Urruneko kontrola daramanak ez du bere burua arriskuan ikusten. Asma dezake, edo huts egin. Baina bera ordenagailuaren bestaldean dago. Hala ere, "Drone" dokumentalean lehen pertsona argi adierazten duten bezala, pertsona horiek, aurrez aurre aritzen direnek bezala, estresaren sindromea pairatzen dute, drone batekin

beste pertsona bat erail ondoren. Hor kokatzen da eztabaidaren beste ertz bat: dronea urrunetik kontrolatzen duena zibila bada, ejerzitoko kide bat balitz bezala da? Ze gerra mota bilakatzeko da?

Dokumental berean diotenez, ejerzitoko ofizialak bideo joko txapelketetara gerturatzen dira, ikuskatzaile gisa, bideo jokoetan adituak direnak drone bat kontrolatzeko egokienak direla iritzita, suposatzen da. Era berean, bideo jokoen programatzaileek droneen kontrolerako beharrezkoa den interfazearen diseinuan laguntzen dute. Nabaria da bideo jokoen munduaren eta droneen arteko lotura.

Droneen gaiak interes handia pizten ari da. Tresna potenteak dira, lan ezberdinek egiteko. Eta hortik dator euren erabilera arautzeko beharra. Interes ekonomiko, militar eta politikoak egongo dira atzean (eta ez da konspirazio bat). Eta Ipar Dakotakoa lehen urratsa besterik ez da. Droneen erabileran sakondu nahi dutenek eztabaida irabazi arteko bidea hasi dute. Eta zerbait lortu dute jada. Adi ibiltzeko gaia da, eta ez AEBetan bakarrik. •



Droneak piloturik gabeko hegazkinak dira. GAUR8

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



JAIME BASTERRECHE

KIRK DOUGLASEK AHO ZAPORE GOZOA ERAMAN ZUEN GAZTELUBIDETIK

Kirk Douglas aktoreak "The Vikings" filma ekarri zuen 1958. urteko Donostiako Zinemaldira. Orduan zinema alorreko hitzordua uztailean izaten zen. Urte hartan Alfred Hitchcock ere Donostian zebilen "Vertigo" pelikularekin, James Stewart aktorea protagonista zuen lana. Hain justu, bi aktore horiek jaso zuten gizonezkoen alorreko interpretazio onenaren saria. Garaiko komunikabideek kontatu zutenez, Kirk Douglasek Donostiatik eraman zuen oroitzapen onena Gaztelubide elkartearen izandako afaria izan zen. Teresa Esteibar sukaldariak prestatu zuen afari hura. Argazkian, Douglas sukaldariaren laguntzaileekin ageri da; Piedad Astigarra-ga -sukaldariaren alaba-, Inaxi Olaizola eta horren alaba Margari Egaña. Argazkia Jaime Basterreche ziburutarrak egin zuen, garai-ko komunikabide zenbaiteko kolaboratzaile zena, "Unidad" eta "La Voz de España"-koa, besteren artean.

1,5€
ZURE BIDAIA ALDIZKARIA
EUSKARA HUTSEAN



DATORREN OSTIRALEAN
GARA-REKIN DOHAINIK



7haizetara

BIDAIA ALDIZKARIA



Harpidetu • 11 ale 15€ urtean • www.zazpihaizetara.com

